

FESTEI BURUZKO INKESTA-LANA GIPUZKOAKO KOSTALDEA

Juan Mari Beltran Argiñena
Karlos Garaialde
Pedro Mari Santos

Gipuzkoako kostaldean, ekialdetik Oriá herrian hasi eta mendebeldetik Mutriku bukatu-rik, mende honeta-ko lehen erdiko partean oizko izan diren festa inguruan bildutako datuak.

Elkarrizketak egiteko, Eusko Ikaskuntzaren Folklore Sailean jasotako kuestionarioan oinarriturik jaso dugu informazioa (bereziki Musika-Musikariak eta Dantza-Dantzariak).

Berrogeitabi pertsona elkarrizketatuak, hogeitabost gizonezko eta hamazazpi emakumezko. Zaharrena 1902 urtean jaioa eta 1927an gazteena. Gehienak 1915 baino lehen jaiotakoak.

Arrantzaleak, nekazariak, dendariak, etxekoandreak, batzuk dantzari eta musiko onak izandakoak eta denak festazaleak.

Bederatzi herri edo auzo, horietatik sei kale girokoak, nukleo urbanoak (Oriá, Zarautz, Getari, Zumaya, Deba eta Mutriku) eta hiru baserritar girokoak edo ruralak (Orioko San Martín auzoa, Aia, eta Itziar).

Datos recogidos en torno a las fiestas que fueron habituales en la costa de Guipúzcoa desde Orió en el este hasta Motrico por el oeste.

Para realizar las entrevistas, la información ha sido recogida en base al cuestionario de la Sección de Folklore de Eusko Ikaskuntza (especialmente Música-Músicos y Baile-Bailarines).

Cuarenta y dos personas han sido entrevistadas, veinticinco hombres y diecisiete mujeres. La de más edad nacida en 1902 la más joven en 1927. La mayoría había nacido antes de 1916.

Pescadores, labradores, tenderos, amas de casa.. Algunos de ellos han sido bailarines y buenos músicos, y amantes de la fiesta todos ellos.

De esos nueve pueblos o barrios, seis de ellos son núcleos urbanos [Oriá, Zarautz, Getaria, Zumaya, Deba y Mutriku], y tres de ellos núcleos rurales (barrio San Martín de Orió, Aia e Itziar).

Collected data on the festivities that used to be held along the coast of Gipuzkoa from Orió in the east to Mutriku in the West.

In order to carry out the interviews, information has been collected on the basis of a questionnaire from the Folklore Section of Eusko Ikaskuntza (especially Music-Musicians and Dances-Dancers).

Forty-two people were interviewed, twenty-five men and seventeen women. The eldest was born in 1902 and the youngest in 1927. Most of them were born prior to 1916.

Fishermen, farmworkers, storekeepers, housewives... Some of them used to be dancers and excellent musicians, and all of them loved the festivities.

Of these nine villages or areas, six are towns (Oriá, Zarautz, Getaria, Zumaya, Deba and Mutriku), and three are rural (the neighbourhoods of San Martín de Orió, Aia and Itziar).

This work is the fruit of field studies which, under the title «Basque cultural personality» I directed in the role of main researcher during 1989-90. I was awarded a grant by the University of the Basque Country

In this research we can see a repetition of the conclusions reached in other field studies, again carried out by myself in Elgueta, Baztán and Maruri, where the Basque person has an outstanding relationship to the mother figure as well as confirmation of the phenomenon which Barandiarán called «Basque formalism».

SARRERA

Eusko Ikaskuntzaren Folklore Sailean Euskal Herriko festei buruz egiten ari den ikerketa barnean kokatzen da lan hau. Elkarrizketak egiteko, Eusko Ikaskuntzaren Folklore Sailean jasotako kuestionarioan oinarriturik, jaso dugu informazioa.

Kuestionario hau jarraituz elkarrizketarekin jaso eta aztertu dira Festa inguruan ematen diren fenomeno eta konponente gehienak, eta bereziki Musika-Musikariak eta Dantza-Dantzariak.

Hogei elkarrizketa, bakarka edo taldeka egingo dira, guztira berrogeitabi pertsona elkarrizketatuak, hogeitabost gizonezko eta hamazazpi emakumezko. Zaharrena 1902 urtean jaio eta 1927an gazteena. Gehienak 1915 baino lehen jaioak.

Arrantzaleak, nekazariak, dendariak, etxekoandreak,... Batzuk dantzari eta musiko onak izandakoak eta denak festazaleak.

Bederatzi herri edo auzo, horietatik sei kale girokoak, nukleo urbanoak (Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Deba eta Mutriku), eta hiru baserritar girokoak edo ruralak (Oriko San Martin auzoa, Aia, eta Itziar).

Batzuetan elkarrizketak ia osorik (galdera-erantzuna) idatzi ditugu, eta besteetan esandako laburpena eginez.

Elkarrizketaren idatzitakoari begirada bat botatzen badiogu, segituan ikusiko dugu zenbat festa egiten ziren urtean zehar, batzuk handiak eta besteak ez horrenbeste. Ikusiko dugu ere herriak nola bizitzen zuten, nola gozatzen zuten festa eta arrantzale herrietan zein lotua dagoen festa eta itsasoa.

Festa zertaz osatzen zen: Musika, (txistulariak, soinu-joleak, dultzainariak, bandak...), dantza, janaria, jokuak (lehorrean edo itsasoan), kirolak,.

Hau dena kaleetan, plazetan, egunsentiko dianarekin hasi eta gaueko dantzaldiak bukatu. Noski, baziren gaupasalariak, baina toki itxietan izaten zen gehienetan.

Zenbaitetan, argazkiaz osatzen dugu idatzitakoa, eta askotan hitzak baino argigarriagoak dira.

Ez dugu iñongo lan analitiko egin, ez zen hori gure helburua, baizik eta era askotako materiala beste ikertzaileen eskuetan jarri:

Musika ingurukoak.- Oiturak, legeak, dantzaldiak...
Herri-joku eta Herri kirolak.
Dantza-taldeak eta dantza ritualak..
Elizkizunak..

Sarrera moduko hitz hauek bukatu baino lehen eskertu nahi ditugu bereziki elkarrizketatuen eta baita ere beraien familikoek eman dizkiguten erreztasun eta laguntasunagatik.

Elkarrizketak hiru urteetan zehar eginak daude (1983-1986).

Lan hau burutu duen taldea zera da:

Juan Mari Beltran Argiñena
Karlos Garaialde Katarain
Pedro Mari Santos

ELKARRIZKETATUEN ZERRENDA

ORIO (KALEA):

1.
 - Jose Maria Solabarrieta Bengoetxea
 - Rafaela Etxezarreta Amundarain
2.
 - Jesus Garmendia Solabarrieta
 - Maria Etxeberria Dentesta
3.
 - Ramon Santamaria Arruti

SAN MARTIN AUZOA:

4.
 - Jose Peña Gozategi
5.
 - Praisku Balerdi

ZARAUTZ:

6.
 - Antonio Alberdi Garate
7.
 - Valero Odriozola Roteta
 - Vicente Olaskoaga Lazkano
 - Jose Landa

GETARI:

8.
 - Antonio Azkue
 - Martina Olaizola
 - Manuela Arregi
 - Maria Azpeitia
9.
 - Ebarista Bikuña
 - Pilar Ituarte
 - Juan García
 - Teresa Andonegi

AIA:

10.
 - Andres Arrillaga Agirre
 - Maria Unsain Arruti
11.
 - Resurrección Manterola
 - Ignazio Maria Aldai

ZUMAIA:

12.
 - Maria Ibarra Albizu
 - Epifania Esnal Maiz
 - Ramona Segurola Arrizabalaga
 - Mercedes Aizpurua Zendoia
13.
 - Jazinto Amas Urbietta
14.
 - Pilar Etxabe Arakistain
15.
 - Valentin Manterola Gomez
 - Agustin Iturain Juaristi
 - Jesus Aizpurua Uranga

DEBA:

16.
 - Jose Ignacio Urbietta Egaña
17.
 - Pepe Rodriguez Epelde

ITZIAR:

18.
 - Antonio Goenetxe
 - Telesforo Zubikarai
 - Maria Mendizabal
19.
 - Pilar Aginagalde

MUTRIKU:

20.
 - Franzisko Lizardi San Sebastian «Kaialde»
 - Tomas Andonegi Barrenetxea «Xoxua»
 - Joakin Larrañaga «Joakin Txiki»
 - Antonio Alberdi «Perkitxu»

1.—ELKARRIZKETA

HERRIA: ORIO.

NOIZ: 1984, Ekainaren 28.

NOR: JOSE M.^a SOLABARRIETA BENGOETXEA. 1915, Orion jaioa.

RAFAELA ETXEZARRETA AMUNDARAIN. 1915, Araman jaioa.



Jose M.^a Solabarrieta.



Rafaela Etxezarreta.

Herriko patroia zein da?

San Nikolas, herriko patroia, baina baita S. Pedro, arrantzaleen patroia.

Zure lana zein izan da? Arrantzalea izan al zara?

Ni arrantzale kastakoa izan naiz, baina beti lehorrean lan egin dut. Nere bi anai arrantza-leak ziren, baina ni 1930. urtean lanean hasi nintzen tailer batean.

Bi jai hauetatik zeintzu ziren inportanteak?

Herriko jaiak, S. Nikolasak ziren, baina jai hobeak S. Pedroko jaiak.

Noiz hasten ziren jaiak?

Bezperan hasten ziren beti.

Nola hasten ziren S. Nikolaseko jaiak?

Bezperan Kalejira txistulariekin. Urrengo egunean, diana, meza nagusia eta prosezioa. Udaletxeok joaten ziren denak eta Alkatearen atzetik herriko jendea joaten zen.

Txistularia, jai bezperan, kalejira betekin hasten ziren? Bakarra ala taldean?

Bai bezperan hasten ziren. Hasieran txistularia bakarra izaten zen Udaletxeok elizara laguntzeko.

Ze izena zuen garai hartako txistulariak?

Leunda eta aurretikan Mariano Gonzalez de Chabari. Danbor jotzailea Dionisio Larrañaga zen.

Prosezioa nola izaten zen?

Aurretik S. Nikolasen imajina eta apaizak ondoren Alkatea eta herrikoak.

Musika izaten al zen prosezioan?

Bai izaten zen; herriko bandak jotzen zuen.

Eta jotzen zutena berezia zen?

Ez, elizako kanten doinuaketa. «Martxa reala» ere jotzen zituzten

Prosezioan, txistulariak ez ziren azaltzen?

Banda zegonetik, ez. Aurretikan, bai.

Musikoak udaletxekoen bila joaten al ziren?

Bai, euren bila joaten ziren eta gero berriz entregatu egiten zuten. Eta bukatzeko hamarretako batetan bukatzen zen.

Eta banda egon baino aurretik, txistulariek berdin egiten zuten?

Bai, S. Iñazoren martxa jotzen zuten eurak laguntzerakoan. Gero hamarretakoa egiten zuten udaletxearen aterpetan, udaletxekoak, apezak eta musikoak..

Hori dena, musika, janariak, edariak, eta hori dena, nork ordaintzen zuen?

Hori dena, udaletxeak ordaintzen zuen.

Gazteen artean talderen baten bat bazegoen herrian?

Luistarrak, edo horretan sartuta zeudenak.

Betidanik ezagutu duzu Luistarren taldea?

Bai, herri honetan beti ezagutu dut. Beste herrietatik etortzen ziren, alegia, Tolosatik, Hernanitik, etabar, eta hemendik ere joaten ginen Gipuzkoako, herri batzuetara.

Koadrilla horretan sartzeko, ze adinakin egiten zen?

Hamabi urtekin, jaunartze nagusia egin ondoren, eta eskondu arte egoten ginen. Eta «Hijas de Maria» taldean berdin gertatzen zen.

Luistarrak, ze lege edo agintari izaten al zuten?

Presidente bat izaten genuen, gure artean aukeratua.

Nola aukeratzen zen presidente hori?

Orain bexelaxe.

Zenbat izango zineten talde horretan?

Hogeitamar bat.

DANTZAK

Ez zen egiten halako dantza berezirik, aurreku edo zerbait?

Hori festetan. Udaletxekoekin jasten ziren dantzariak, eta aurreku egiten zuten.

Hori beti txistulariek jotzen al zuten, aurrekuia eta beste dantzak?

Bai beti txistulariek jotzen zuten, bandak sekulan ez

Noiz dantzatzen zuten?

Meza nagusi ondoren, herriko plazan.

Azal ezazu nolakoa izaten zen dantza hori? Nola hasten zen?

Gazteek afiziogatik bildu, ikasi eta dantza egiten zuten. S. Pedro egunean, eguerdiko 12etan aurrekua dantza egiten zuten eta ordubeteko saioa egiten zuten.

Txistulariek jotzen hasten ziren?

Bai, txistularia bera hasten zen. Gero sokak herriko neskekin egiten zuten.

Alkateak egiten al zuen aurrekua?

Ez.

JOLASAK

Gero zer egoten zen?

Gero oilasko biltzea izaten zen. S. Pedroren bigarren gauean oilaskoen bila joaten ziren herriko gazteak. Batzuk bailara batetik eta besteak bestetik. Goizean seirak aldean denak biltzen ziren toki baten. Dena lotuta eramaten genuen herrira.

Musikakin joaten al zineten?

Bai. Txistulariekin eta kantatu ere egiten genuen.

Eta gero zer gertatzen zen oilasko horiekin?

Gero oilasko jokua egiten genuen: oilaskoaren lepoa ohol baten zuloan sartu eta ezpatakin lepoa moztu. Hau dena plazan egiten genuen. Gero ziripot atera eta dantza egin ondoren oilaskoen lepoa moztu egiten genuen.

Ze dantza moeta eta zer musikarekin?

Ez zegoen ezer berezirik. Txistulariek jotzen zutena dantzatzen genuen eta nahikoa zen. Beste jolas bat zen, zubitikan zoka batetik zintzilikan jarri ahaterari. Bi txalupetanarraunekin eta hirugarrenak harrapatu behar zuen ahatea berengan gelditu arte.

Ze dantza klase egiten zen garai hartan?

Suelto: fandango, jota, dantza librea. Hau dena banda egon aurretik.

Aurrekua dantzatzeko al zegoen orden bat, zeini atera.. etabar?

Ez, librea zen; nahi zuena irteten zen.

Bestela aparte, musika noiz egoten zen? Goizean?. Egunero egoten diana?

Egunero ez, goizetikan bakarrik jaia izaten zenean. S. Nikolasetan eta S. Pedrotan goizetik diana egoten zen.

Beste musikoak ere etortzen ziren? Gaiteroak, etabar?

Bai, Estellatik etortzen ziren dultzaineroak. Eurak ere diana jotzen zuten.

Ze ordutan erretiratzen zen jendea?

Festetan goizeko ordubatak aldean.

Musikoak nork kontratatzen zituen? Luistarrak, Udaletxeak,....?

Udaletxeak kontratatzen zituen.

Dantza suelta hori nola izaten zen?

Aurretik neskak irteten ziren, eurak hasi eta gero mutilak: «faborez» esan ondoren eta baiezkoa hartu ondoren neskaren aldetik, dantzatzen hasten ziren. «Kalabazak» eman ezkeo bazterrean gelditu behar,.

Ez zenuen izaten abesti berezirik?

Normalean ez

Musikoak kobratzen zutena garestia zen?

Txistulariek hasieran baten, sei duro inguru kobratzen zituzten. Geroztik pixkat gehiago, hamar duro inguru.

Banda egon aurretik, kanpotik ekartzen zuten musika, Hiru Txulo Donostiatik, Zumaitik ere, etabar. Gero bertan banda sortu zenean, bertakoak jotzen zuen.

Dantzarako jazkera berezirik jartzen zuten dantzariak?

Bai, galtza txuriak eta gerriko gorria.

Dantzak ikasteko, jendeak nola ikasten zuen?

Euren artean baten bat beti dantzalea zen eta honekin ikasten zuten.

Eta azkenengo garaian, dantzari trebeena nortzuk izan ziren?

Esteban Elizondo eta Leunda, zaharreen artean behintzat.

Orduan festa egun baten programa, zein zen?

Goizean diana txistulariekin edo dultzaineroekin.

Meza - Aurrekua eta dantza txiki.

Bazkal ondoren, bostak aldean dantza hasten zen; batzutan ere bertsolariak ere egoten ziren.

Festetarako, etxeak kanpotik apaintzen ziren?

Bai, balkoitan maindire txuriak edo kolorezkoak jartzen ziren.

Kanpaiak jotzerakoan zerbañ berezirik jartzen ziren?

Bai, egunean zehar askotan jotzen zuten. Kanpaiak haundiak ziren eta esaten zuten, Oartzunetik entzuten ziren.

Zuri, zer iruditzen zaizu gaur eguneko jaiak eta garai hartako jaien arteko ezberdintasuna dagoen bai ala ez?

Garai hartako jaiak ongi pasatzeko ziren; gaurko jaiak ordea, maliziaz besterik ez daude...

2.—ELKARRIZKETA

HERRIA: ORIO.

NOIZ: 1984, Irailaren 27.

NOR: JESUS GARMENDIA SOLABERRIA. 1909, Bilbon jaioa. Oriora ezkondua.

MARIA ETXEBERRIA PONTESTA. Orioko Dikeko etxean Jaioa.

Noiz dira herriko jaiak?

S. Nikolasak, Abenduaren 6an. Hiru egunetan ospatzen dira jaiak.

Nola hasten ziren festak? Noiz hasten ziren?

Garai hartan bezperan hasten ziren. Iluntze aldean kalejira betekin bertako txistulariak lagunduz. Garai hartan Gonzalez de Txabarri zen bertako txistularia.

S. Nikolas egunean: meza, prosezioa, aurreeskua..

Prosezioa gogoratzen zara nolakoa zen? Jendea nola joaten zen?

Udaletxeko bat aurrez aurre ikurriñarekin joaten zen. Herriko bandera edo Gipuzkoakoa izaten zen.

Prosezio horretan ze ordenean joaten zen jendea?

Bandera horren atzetik gizasemeak bi hileretan zihozten eta horien erdian S. Nikolasen imajina; gero apaizak eta atzetik emakume guztiak: «Hijas de Maria» eta beste talde guztiak..

Ze rekorrido egiten zuen prosezioak?

Elizatik jetxi, buelta bat eman plaza eta Udaletxetik eta berriz eliza aldera itzultzen zen.

Prosezioan musika izaten al zen? Edo banda? Edo txistulariak?

Banda eratu zenean banda joaten zen; aurretik txistulariak.

Udaletxekoan bila joaten al ziren?

Bai, Alkatea eta kontzejalak, txistularien musikaz lagunduz josten ziren. Alkateak eramaten zuen arku bat eskuetan. Gero elizakoak bukatu eta gero txistulariak udaletxekoak udaletxeko arkuperaino laguntzen zituen. Eta bertan agurtzen zuten «Agur Jaunak»rekin.

Gero aurreeskua izaten al zen txistulariekin?

Bai, urte batzutan bai eta beste batzutan ez.

Orduan zer egiten zuten?

Jo aurreeskua. Txistulariak bertan egoten ziren. Aurreeskua jende gazteak dantzatzen zuen.

Eskonduak irteten al ziren aurreeskua dantzatzera?

Gutxitan, gehien bat gazteak izaten ziren irteten zirenak.

Festak harmatzeko zeinen kontuetan izaten al ziren?

Udaletxeak ordaintzen zuen gehiena edo dena.

DANTZAK

Aureskutik aparte zein beste dantza moeta egiten zen?

Suelto bakarrik.

Hemen aureskua nola dantzaten zen? Beste tokietan bezala?

Bai, berdin.

Dantza soka horrek, auresku barnean, nola egiten zuen buelta?

Erlojuen orratzak egiten duten bezala, ez; beste aldera.

Auresku horretan udaletxeak egoten al ziren? Edo jendea bakarrik?

Ez, denak egoten ziren.

Gero arratsaldetan berriz aureskua, dantzaten zen?

Batzuetan bai, beste batzutan ez.

Dantza libre a ze eratakoea dantzaten zen?

Hemen fandangoa ttuntunarekin dantzaten zen.

BANDA

Nola montatu zen Orioko musika banda?

Guerra baino aurretik. Kanpotik etorritako batek, Marin izena zuena.

Noiz arte egon zen banda hori?

Orain dela hamasei urte arte. Geroztik txaranga bat sortu herriko jende batekin.

Repertorio handia zeukan banda horrek?

Lau bat pieza jotzen zituen jarraieran eta gero atsedentxo bat egoten zen. Orduan txistulariak sartzen ziren. Garaia hartan Larrañaga eta Leunda jotzen zuten.

Zenbat jendek eratzen zuen banda hori?

Hamabi bat gutxi gora behera.

Beste musika klaserik egoten al zen.. soiñu txiki...?

Noizean behin triki-trixa egoten zen, kanpotik ekarrita.

Txistulariak kontratatuak egoten ziren?

Bai, Udaletxearekin kontrato bat izaten zuten.

Jendea nola jazten zen? Festetarako jantzi berezirik jartzen al zuen? Zintak, pañueloa, etabar?

Ez, kaleko erropa normalak eta gehien bat pañuelo bat lepoan.

Ezagutzen al zenuen dantzari talderen bat Orion?

Ez, ez zegoen.

S. Nikolas bigarren egunean zer izaten zen?

Jende gutxiago egoten zen. Herriko jendea bakarrik. Egun horretan konfesioak izaten ziren, urrengo eguna, Ama Birjiñaren eguna zelako.

Eta Ama Birjiñaren egunean zer egiten zen?

Meza, prosezioa, Arratsaldean bezperak. Gero soinua izaten zen.

Eta zezenak zer?

Zezenak gerra geroztik egiten ziren. Demak ere izaten ziren noizean behin. Eta baita herriko zubian soka batetik ahate bat lotu eta bateletatik harrapatzea. Estropalariak traiñeruakin harrapatu behar zuten ahatea.

Ze egunetan egiten zen oilasko biltzea?

S. Pedroren bigarren egunean. Goizaldean joaten ziren baserriz baserri eta itzultzen ziren hirugarren egunean.

Horrekin zer egiten zen?

Bazkariak eta afaria.

Emakumeen estropadak egiten al ziren?

Bai, bateletan egiten ziren. Batel bakoitzean hiru emakume eta patroia joaten ziren.

Zer dakizu oilasko jokoari buruz?

Herriko plazan egiten ziren. Lepoa moztu behar zuten parte hartzen zutenak. Bi makiletan lotu oilaskoa eta ttuntuna jotzen zuten eta ondoan gelditzen zena moztu behar zuen.

Festa egun hauetan, jendeak jai izaten al zuen?

Bai, hiru egun horietan denak jai izaten zuten.

Festa horietan izaten al zen halako bazkaririk herriko jendearentzat?

Musikoei sakotan emanten zien, besteetat, ez. Azkenengo herri bazkaria estropalarietarako omenaldia izango zen.

Festetarako etxeak kanpotik apaintzen ziren?

Ez, proseziorako maindire batzuk jartzen ziren balkoietan.

Festetarako kanpaiak jotzen al zuten ere berezi batetan?

Ixildu ez, denpora luzean.

Jendea noiz erretiratzen zen, bai S. Nikolasetan, bai S. Pedrotan?

Goizaldian, dirua erre arte inor ez zen erretiratzen.

Inguruko herrietatik etortzen al zen jendea herriko festetara?

Bai, gehien bat Zarautzetik, Agiñatik, Zumaitik, etabar.

Eta zuek joaten al zineten herri horien festetara?

Ez, normalean. Noizean behin Aiara prosezioa ikustera. Baita Santillo eta S. Martiñera.

3.—ELKARRIZKETA

HERRIA: ORIO.

NOIZ: 1983, Urriaren 7

NOR: RAMON SANTAMARIA ARRUTI. 1907, Orion jaioa.



Ramon Santamaria.

Ramon Santamaria Arruti..

Hemen, Orion jaioa zara?

Bai.

Etxe honetan?

Ez... horixe nola explikatuko nizuke... dike... dike ondoan... kurba hortan...

Noiz?

Seis de Octubre del siete.

Eta hona, etxe honetara noiz etorri zinen?

Hamabostian.. el año quince.

Hau da Alfontso-Enea etxea ez?

Bai.

Eta aita ta amaren izenak ta non jaioak...

Aitak Alfontso izena zuen eta amak berriz Franziska. Ama Aian ta aita berriz asilotikan (?) ekarria izango zan... Orion...

Ederki, ia hasiko gara Festa Nagusiei edo Patroi jaiei buruz hitzegiten. Nor da Orioko Patria?

San Nikolas.

Noiz ospatzen da hau?

Seian... Abenduaren seian...

Beti?

Bai, bai, beti, beti.

Beno, Festak zuek gazteak zinetenean, garai hartan, zenbat egunekoak izaten ziren?

Orain bezelaxe, hiru egun edo, baino orduan festa egiteko dirurik ez zen

Zein egunetan hasten ziren?

Hilaren seian, abenduaren seian... eta gero hiru edo lau egun,... bat edo, bi edo... al zuenak al zuena egiten zen. Ez zen dirudikan orduan ta..

Hiru egun hoietan lana egiten zen? fabriketan... arrantzaleak..

Fabriketan ez.. Arrantzaleak batzuk bai... noiz edo noiz itsasora joaten zen... Mixeria hainbestekoa zen ta..

Eta horren aparte, anguletara edo joaten zintan, nahiz ta jai izanagatikan?

Bai, bai. Anguletara gauzez ibili behar izaten zen eta..

Ta ez al zineten ibiltzen hemen?

Bai, sariakin ahal zenean.. karabineroen igesi ibilita..

Nola ematen zitzaion hasera festari?

Orduan errespetu handia zegoen gauza horiekin, elizako gauzetan, Meza Nagusira joan behar izaten zen eta San Nikolasekin prozesioa egiten zan Meza Nagusiaren ondoren.

Bezperan ez?

Bai bezperan «itxfuegok» eta haik besperan..

Musikarik?

Musika... lehenago musika herrian ez zen eta Andoaindik eta ekartzen zen Banda. Hori San Nikolas egunean izaten zen, hilaren seian.

Festa hasten zen orduan..

Hilaren bostean arratsaldean edo iluntzean. Bainan esan dudana, orduan dirurik ez zen.. oraingo baino errespeto geiagorekin izaten zen orduan gauza..

Bainan zerekin hasten zen festa?

Horixe, kalejirak

Zein musikarekin?

Txistuakin.

Goazen Prozesiora, San Nikolas egunean Meza Nagusiaren ondoren prozesioa egiten zen, jendea nola joaten zen...

Errespetu handiarekin.

Bai bainan, lehendabizi zein, gizonak, emakumeak, agintariak..

Bai agintariak bai.. Lehendabizi jendea joaten zen eta gero Aiantamientua bere banderarekin eta gero Santua bizkarrean hartuta... eta gero Apaizak eta kofradiko bandera ere... makina bat bider eraman izan dugu... Gizonak aurrean eta Santuk eta horiek erdi parean eta emakumeak atzean. Errespetu handikin egiten ziren gauza horiek.

Musika prozesio horretan.

Bai, izaten zen.

Zeinek jotzen zuen?

Lehen ere esan dizut Andoaindikan eta hola jeneralean ekartzen zen Banda... Txistulariak ere besterik ez bazen..

Txistulariak zer musika klase jotzen zuen?

Beno martxa..

Santuaren Martxa.. bertako musika bereziren bat?

Elizako martxarik ez al zuen jotzen?

Segun, segun.

Ba al zegoen kantaren bat, San Nikolas kanta edo?

Ez, ez dut uste. Gero arratsaldean berriz esan dizutena, bazkaldu ta jendea Plazan juntatzen zen txistua edo, eguraldi baldi bazen, orduan ez zegoen orain bezelako plaza, eta han erromerian..

Funtzio aurretik edo ondoren Aiuntamientukoei laguntzen zitzaien?

Bai, lehen aiuntamienturaino entregatzen zen Aiuntamientu osoa, plenua esaten den bezela. Gure aita zena ta izaten ziren... orduan gure aitak zazpi urte egin ta dimititu egin zuen osasunak ez ziola laguntzen ta.. Baina orduan oraingoaren alde errespetu handia zen. Gero arratsaldean Bezperetara jendia eta Bezpera ondoren lehen esan duguna Plazara, erromerira. Gero gauean soinua izaten zen hamabiak alderarte edo.

Dantza nola egiten zen «al agarrao» edo «al suelto»?

«Al agarrao» pekatua zen orduan. Kongregaziotik eta dantza egiten zutelako lotuan bota egiten zuten.

Prozesioaren korridoa, gutxi gora behera.

Elizatikan atera eta herriari buelta ematen zitzaien.

Bainan, herriari, zein kaletan, por ejemplo, udaletxean..

Kamino ixkinaraino.

O sea, Kaja de Ahorros-ko hortaraino, hor karretera jeneralen eta gero Felizianon karnezertikan jetsi eta gero molla ezta? Molla Plazatikan ezta?

Bai.

Paradaren bat edo beste edukitzen zuen?

Ez. San Nikolasen jeneralen..

Plazara ailegatzen zinatenean zer egiten zenuen, berriz Elizara joan?

Bai, berriz Elizara joan, aldatipikan gora Elizara.

Banderarekin zerbait egiten zen? Dantzaren bat edo? Dantzariak joaten ziren?

Bai, jeneralean zer edo zer sortzen ziren bertsolariak edo haizkolariak edo..

Bai, bainan honek esan nahi dizu prozesio orduan por ejemplo.. erderaz esango dizut «se hacia una reverencia al Santo o asi por parte de los dantzaris o...» Ez?

Elizan.

Eta dantzariak Elizaraino sartzen al ziren?

Bai, Orioko Elizan behintzat sartzen ziren.

Orduan prozesioan dantzariak ere zindoazten.

Bai, bai.

Garai hartan?

Bai, behin pixka bat [?] dantzariak prozesioan Santuaren kostauan joaten ziren.

Bainan hori kontu zaharra da edo gero berriz..

Ez zaharra, gero pixka bat berritu zen.

Honek esan nahi dizuna da gerra aurretikan edo?

Bai gerra baino lehenago.

Año veinte, treinta..

Lehenagotikan ere bai., ia guk sasoa., arraunean ibiltzen ginen eta ordurako zer izan-
go zen ba? Veinticinco edo..

Aurretik izaten zen ohitura hori?

Bai, nire denborarako ohitura horik baziren... Gero galdu.. gero oraintxe bezelaxe hasi
ziren gerra aurretikan reboluzioak eta opiniok eta politikak eta saltsak eta okasiok eta zerak.
Gainontzeko jendiak gauza hauetan oraingo aldean ikaragarri relijio kontuan..

Dantzariak prozesioan zer egiten zuten.

Urtean izan dira geratu eta Santuaren aurrean dantza egiten zuten.

Aurrekua?

Aurrekua bai, gero.

Bainan prozesioan?

Ez prozesioan ez,.. Gero, Elizatik ateratzen zirenean, Aurrekua ta horiek egiten ziren
Egunean bi aldiz..

Bai, bainan Santua aurrean zegoela ez zuten egiten aurrekua?

Ez...

Orain datorrena da gazteen: organizazioa festarako. Ba al zegoen koadrillarik?

Koadrilak asko.. Dikeko koadrila.. dikekoek kalekoekin nahastuta.

*Bai eta koadrila horiek armatzen zituzten festak edo Udaletxeak bakarrik antolatzen zi-
tuen festak?*

Hortan atzeratsu izan da, festak asmatzen, Orio.

Orduan hemen egiten ziren festa guztiak Udaletxeak egiten al zituen.

Jeneralean bai, bainan gero izan zen., esango dizut nik... hogeitau hamar inguruan Toki
Alai... ez, Talai Mendi soziedadea.. ta handik armatzen ziren estropadak eta..

*Gazteen koadrila horietan zer edadeko jendea egoten zen? Noiz sartu ta noiz atara? adi-
bidez ezkontutakoan koadrilatik ateratzen ziren.*

Ez, ez.. hori norberak... koadriletan sartzen ginen.. lagunak elkarrekin.. Guk jokua izan genuen... «hokey»... Anikoten ibiltzen ginen hemen... automobil gutxi izaten zen ta kaminoan, koadrila bat osatzen ginen, zortzi edo hamar lagun... ni kapitain, de balde... Hortantxe ibiltzen zen jendia ta pelotan ta..

Eta pelota partiduak edo estropadak jartzen zirenia zeinek organizatzen zituen Udaletxeak edo zuek, Talai-Mendiko soziedadearen bitartez edo?

Ez, horiek aiuntamientuaren bitartez.

Orduan hemen errebotia izango zen?

Errebotia nik justu justu ezagutu nuen.

Eta festetan bakarrik egiten al zen?

Ez, gainontzean izaten zen.. ta onak ziren Oriotarrak, oso onak! Zubietarrak... Billabonatarrak... ta hauek irabazi egiten zien Billabonatarrei... ta gero denak bat eginda frantzesen kontra...

Non zen hemen erreboteko plaza?

Oraingo plazan. Udaletxe zaharra paretara bat eta plaza atzean dagoen beste etxe hori bestea... Orduan molla motzago huan ta fosak bezela zeuden, izkinetan harrizko bankuak eta partidua erdi erdian jokatzen zen.

Gazteen koadrilak egiten al zuten errendaren bat herrian gauzak eskatzen edo «puxkak biltzen»?

Oilasko biltzea bai.

San Nikolas-etan?

Ez San Nikolas-etan ez, San Pedro-tan.

San Nikolas-etan orduan ez zenuten horrelako eskerik egiten?

Ez, ez.

Nik esplikatuko dizuet. Orduan izaten zen ohitura: Festa lehendabiziko egunean izaten zen, San Nikolas eguna ta gero bigarren egunean pixka bat ere bai, baina bigarren egunean izaten ziren konfesioak, ta orduan neska mutil guztiak konfesatzera, ta behin konfesatu ezke-ro musika ere bukatu egiten zen, hilaren zazpian.

Zazpian Amabirgina egunaren bezpera.

Gauean txistua edo zer izate huan baina besterik ez. Gero Amabirjina egunean goizean funtziora, elizara, ta gero berriz ere eguerdia ezkeroz hasten zen berriz musika.

Amabirjina egunean konfesio jenerala izaten zen ta, komunioa. Arratsaldean prozesioa izaten zen Ama Birjinarekin ta San Nikolasekin ta denak. Ondo gainera, jendea aingeruz jantzita ta.. oso ondo..

Zein jazten zen aingeruz?

Neska gazteak, ta mutilak ere bai, gazteria.

Zenbat jende bezala?

Asko... hogeitaz hamar lagun bai.

Jantzi horiek zer ziren, norberarenak edo herriarenak...?

Kongregazioak, Luistarrak eta «Hijas de Maria» ta han eskatu behar diruarekin. Diru hori norberak jartzen zuen limosna bezala. Errespetu gogorra izaten zen.

Goazen dantzetara, zein dantza egiten zenituzuen garai hartan?

Garai hartan koadrilak osatu aureskua ateratzeko ta.. errenkada handiak... gazteria..

Ezpata dantza.. makil dantza..

Bai, geroxeago, horiek geroxeago.. lehengo zaharra ez zen hori...

Lehengo zaharra zer zen, aureskua bakarrik?

Bai aureskua ta dantza librea ta..

Lehendabiziko aureskua nork hasten zuen, edozeinek, nahi zutenak edo norbaitek atera behar zuen edo.. ?

Gazteria juntatzen zen eta... kate luzea bueltan... bueltan denak ibiltzen ziren... baina aurrekoak eta atzekoak bakarrik egiten zuten gero dantza.

Txistulariarekin.

Bai.

Hortarako garai fijo bat zegoen?

Arratsaldean jeneralean edo eguerdiko denboran edo...

Soka bororil horrek nola ematen zuen buelta hola edo hola, beti sentidu berdinean?

Ezkerretik eskubira.

Sentido de las agujas del reloj?

Beste aldera.

Plazan?

Bai, plazan.

Bainan lehen ez huan horrelako plaza, lehen egiten huan plaza ta frontoia ta dena han ez zegoen ez arkurik, ez teilaturik, ez ezer, Plaza hori (oraingoa) egin zen uste dut «el año treinta y tantos» oraingoa baino aurrekoa, hamabi pilote zeuzkan plaza hura. Erregina noiz etorri zen hona?

Veinticinco-n.

Ba... handik gutxira egin zen lehenagoko plaza zahar hura., ta gero egin zuten beste hau el año «setenta y seis o siete»... Zaharra, Erregina etorri eta gutxira egin zen... Orduan jokatu zenuen estropada hura ez?

Oriotik bi koadrila preparatu ginen eta estropada tokatu genuen eguerdian.

Goazen dantzara berriro. Noiz dantzatzen zen?

San Nikolas egunean eguerdian hasten zen aureskua eta gero igual beste bat arratsaldean, jendeak segun zer umorea zuen. zazpian ere batzutan dantzatzen zen arratsaldean edo eguerdian igual..

Ta zeinek erabakitzen zuen dantzatu behar zuen ala ez, txistularia eraman e.a.

Txistularia Aitamentuak jartzen zuen... zerbait pagatzen zioten. Hiru egunetan egiten zen kalejira goizean, bederatzietan edo horrela herri guztiari buelta, diana.

Txistularia bakarrik joaten zen?

Ba! Gazteria aurrean edo atzean saltoka.. ta gazteria dibertituz herriari buelta, lehenda-bizi S. Nikolas bezperan, gero S. Nikolas goizean eta gero elizara, aiuntamientuarekin elizara joaten ziren Udaletxetik. Gero prozesioa eta gero Aiuntamientuarekin udaletxera etortzen ziren txistulariak eta handik aurrera izaten zen plazan aureskua..

Dantzarako jazten zuten eropa bereziren bat?

Bai... txistulariak uniforme zuela uste dut...gero ezpata dantzariak eta horik hasi zirenean orduan bai.

Bainan zure gazte denboran?

Galtza txuriak, alkandora gorria.

Gerrikorik?

Bai.

Berdea?

..bai hala eramango zuten...(?) Alkandora zuria eramaten zuten, gerrikoa gorria.. txapela gorria.. ta alpagata zuria.

Edozein pertsonak dantzatzen zuen aureskua edo gazteak...?

Ez, edozeinek. Onentxoek edo afiziuak zutenak. Aureskuan onenak zirenak hil ziren, Manuel «Oliua» ta Patxi Uzkudun...

Lehenago esan duzu bat aurrelaria ta bestea atzelaria zirela, izen horiek ematen zitzaizkien?

Izena., bakoitzak berea!

Aurrean eta atzean dantza egiten zutenak zer ziren, onenak edo?

Horixe, bueltan ibiltzen ziren bainan atzekoak eta aurrekoak egin behar zutenean elkarrekin, besteak geratu egiten ziren.

Nola joaten ziren, panuelotik lotuta?

Bai, painuelotik, lehengo lege zaharrak horiek ziren.

Kanpotik etortzen ziren musiko bakarrik «bandakoak ziren edo beste soinu jole edo gaitero edo, etortzen al ziren?

Bai, «dultzaineruak», Estellakoak, bainan San Nikolasetan ez, haiek San Pedroan etortzen ziren.

Musiko horiei zeinek ordaintzen zien?

Aiuntamientuak.

Eta hemen gelditzen ziren bi edo hiru egunetarako..?

Ez, egun batean.

Banda ere egun baterako etortzen zen?

Bai.

Egun horretan zer egiten zuten, bazkariren bat edo.. ?

Bai, bazkaria eta afaria ere, beranduxamar arte egoten ziren eta.

Gazteen koadriletan bazkaria edo zerbait egiteko ohiturarik ba al zegoen?

Gutxi.

.....
Txistulari horren izena gogoratzen duzu?

Bai, Mariano Gonzalez eta Rufino Gonzalez tanborrerua, anaiak.

Eta orain dela zenbait denbora bezela hil ziren?

Hogei ta hamar urte badira Mariano hori hil zela, txistulari ederra zen.

Ez duzu jakingo zenbat kobratzen zuten, asko edo gutxi...?

Gutxi.. Andoaingo bandaren direktorea oriotarra zen Don Fernando Agirre.

Beste txistularik edo ezagutu duzu hemen Orion?

Bai, «dultzainerok». bainan bertakoak ez, kanpotik etortzen ziren,

Rufino eta Mariano hauek noiz arte jo zuten hemen herrian.

Orain hogei bat urte arte.

Gehiago, orain hogei urte Leunda zegoen. Gonzalez hauek ziren gerra aurrekoak, ondoren etorri ziren Dionisio Larrañaga Tanborrerua eta Bitoriano Leunda txistularia.

Jazkera. Jende normala, dantzaria, festetarako nola jazten zen?

Batzuk jartzen ziren lepoan pañuelua jarrita, mantalak... basarritar jazkera.. blusa.. Orain jendea pixka bat espabilatu da bainan bestela Orio atzera izan da festa kontutan.

Hemen inguruko herrietan non ziren festa hoberenak?

Zarautzen, hemendik jende asko joaten ginen, orain, oinez e! Oraingo aldean jende sarena.

Festa egunetan, bakoitza noiz erretiratzen zen, ba al zeunden horretarako ordu batzuk jarriak?

Goizago, behin hamarrak ezkerok.. erretira..

Seinaleren bat edo abisurik izaten al zen?

Bai, Anjelusa elizatik jotzen zuten ta gero tabernetan «serenua». hamaikak aldea edo..

Anjelusa?

Zortziretarako, Serenua hamaiketan., Jai handietan igual ordu bete geroago.. Serenua tabernaz taberna ibiltzen zen makilakin eta harek jotzen zuenean erretira!

Eta denak obeditu ez al da?

Den denak ez noski bainan... maldizua botatzea orduan ere kastigu gogorra izaten zen...

Beno, bukatzeko, festak nola bukatzen ziren?

Seian hasi ta zazpian hostutzen ta zortzian ziara! Ama Birjina eguna izaten zen eta..

Ama Birjina egunean ilunabarrean izaten al zen dantzarik?

Bai... arratsaldean funtzioa elizan ta gero prozesioa

Goazen San Pedrotara.

San Pedrotan festa onak egiten ziren. Bezperan hasten zen, kalejirak eta gainontzeko horik... «altxafuegoak»... txistua eta guzti, Musikoak etortzen zirenean, musikoeekin egiten zen kalejira hori... Bandarekin... Gero hemen ere banda armatu zen. Felipe Arostegi zen direktorea, Ez! Banda beste kastellano batek armatu zuen.. Banda ona. Hogei ta laurako behintzat bazegoen banda (1924). Hemen ikasten ibiltzen ziren... «Bahia» (?) orain non dagoen, hor ibiltzen ziren egunero beste gizon horrekin, kastellanoa zen...

Banda horrek San Nikolasetan ere jotzen zuen?

Bai, behin armatu zenean bai... lehenago Andoingoak etortzen ziren.

San Pedrotan, jokorik edo aposturik, bertsolariak, zezenak edo horrelako zerbait izaten al zen?

Bertsolariak, kukañak, ahate jokoak... traineruak jartzen ziren eta ahatea hemen zubian zintzilik... ahatei lepoa kentzea, traineru batek gizon bat eramaten zuen atzean... Gaztea, al-perrik da, gaztea ezin errenditu ezer egin gabe eta San Pedrotan eta San Pedro bigarrean bi estropada izaten ziren. San Pedro zer aldea kentzen zion urrengo egunean kontutan izaten zen... enbarkazioak nor bereak.

Ahateren joko horrei noiz utzi zioten?

Antzar jokua esaten zioten... Hori azkenengoan guk jokatuko genuen. Hogei ta hamazazpian, Gerra baino piska bat lehenago.. San Pedro egunean goizean kalejira egiten zuten musikoak eta txistulariak txandatuz, gero Meza nagusira joaten ginen hamarretan, Aiantamientua ta denak, gero San Pedrorekin prozesioa egiten zen... Ondoren jendea plazan juntatzen zen eta han izaten ziren bertsolariak edo haizkolariak jeneralean...Kukaña jartzen zen muellean eta mareajea zenean egiten zen hiru egunetan eta gero gainontzean korrikalariak zirela edo ziklistak zirela edo.. horrelako fiesta asko izaten zen.

Gero ilunabarrean izaten al zen «Banda musika»?

Bai gau erdi arte hiru egunetan.

Orduan ez al zen izaten hamaiketan serenoak jotzen zuenean..

San Pedrotan ez.

Herrikoentzat zeintzuk ziren festa inportanteenak?

San Pedro... San Pedrotan gauean jendea erretiratu gabe... hiru egun behintzat seguru izaten ziren. Hiru egun horietan ez zegoen itxasora ateratzerik, ezta pentsatu ere!

Zezenak izaten ziren?

Bai sokamuturra ta horiek egunero, goizean zortzirak aldera... lokotxa biltzea ta... nik ikusi dut hori egiten igelakin karrera jokatzen, karretilan hartu hamar, hamabi edo hogei ta haiekin buelta egin behar, lurrera eroritzen zirenak jaso egin behar eta... gehienak ekartzen zuenak harek irabazten zuen.. Lokotz apostua ere bai, jarri lokotxak errenkadan eta banaka banaka lepotarrera bota behar, lau, bost edo sei igual jokatzen... zaku karreran ere bai, zakuarekin tapatuta, goikua ere bai.. nik ikusi dut bat, difuntua dago, tapatua zeharo tapatuta, haruntzko pareta jo eta aurpegia dena txikitu zuen, Ramon barberoa nola da? ba, horren osaba... Ez zen harritzekoa, apustua, aurrenekoarentzat izaten zen premia eta martxa eta ez ikusi nora zindoazten ta danba! pareta jo zuen... Gero pelota partiduak ere izaten ziren San Pedrotan.

Ordurako Futbola izaten al zen?

Ordurako., bai, laister zen.. Talai Mendi guk gazteak ginela zen. Kanpo ederra egin zuten, orain «casas baratas» dauden hartan.. Ekipoa ere bastante ona, Lasarteareri ta horrelakoei behintzat irabazten zien Zarautzarrekin behin finalera ailegatu ziren Oriokoak eta bat eta huts galdu...

Aureskua noiz arte dantzatu da?

Bertako jendeak piska bat utzi du orain 5-6 urte edo gutxiago. Kanpoko ekartzen hasi gero.. Dantzaria ederra nik anaia izan nuen..

Gaiteroak edo dultzaineroak etortzen ziren..

Bai hiru egunetarako... San Pedro goizean etortzen ziren... trenean etortzen ziren eta diana egiten zuten.. Estellakoak..

Noiz hasi ziren etortzen?

Aspaldi. «El año diez o doce»..

Ordurako Estellakoak?

Bai urtetik urtera haiek etortzen ziren.

Herrian ez da izan dultzainerorik?

Ez.

Lehen utzi dugu, San Pedrota «oilasko biltzea»

Oilasko biltzera joaten ginen. Estropadetan jokatzeko genuenak juntatzen ginen goizean eta bi koadrilla egiten genitugun, batzuk gora eta besteak bera. Gero oilasko guzti horiek bildu eta oilasko jokoak egiten zen Plazan, zulo batean sartu, ohol bat jarri zuloan, zulo hortatik lepoa atera gora eta aurpegia tapatuta ezpatarekin joan eta hari lepoa kendu. Dantza egiten joaten ziren eta bertan buelta bat edo bi egin eta gero lepoan jotzera.. Hori egin zioten «Konpaxa» difuntuari, Aginara joan ziren eta «oilasko jokua» egin behar zutela. Broman egiten zela uste eta «Konpaxa» difuntua jarri da burua goian duela lepotarrean eta benetan joan eta lepoan jo egurrarekin! Sekulako eskapada egin zuten... Manuel «Oloa» eta Konpaxak behin, «Konpaxak» jarri zuen kopa buru gaietan eta joaten da bestea, egiten ditu bere dantzak eta eginkizunak eta burua ustez baino beherago eduki eta lepoan jo zion..

Oilasko biltze hortara musika eramaten zenuten?

Ez, txistuakin. Bi koadrilla joaten ginen, eta oilasko asko biltzen genuen, hirurogei ta hola. Baserri gehienetan ematen zuten..

Kanturik?

Ez, txistua eta dantzan. Fiesta politak egiten ziren, oraingo aldean orduan jendea «bromosua» zen.

Oilasko jokorako musika bereziren bat ba al zen?

Ez, txistua... pasacalles bezala. Gero oilasko horiekin biltzen ibilitako jendeak bi egunetan banketea izaten genuen.

Non zen banketa hori?

Hemen, Toki-Alaien. Ordurako restaurantea zen baina beste izen bat zuen.

Zeinek prestatzen zituen?

Bertakoek. Orduan jende asko etortzen zen kanpotik, famili artekoak eta ezagunak, hiru egunetarako etortzen ziren..

Zuek ere joan zineten beste herriatera..

Ea ba! Zarautz ta Irunera ere joan ginen.

Urtean zehar beste festa edo erromeririk izaten zen hemen Orion?

Karnabaletan, oraingo aldean asko karnabaletan.. gizasemeak emakemez jantzita ta.. San Martin egunean baserritarrak festa egiten zuten hango ermitan, Itsastarrak ez. San Juan eguna ere lehenago egiten zen beste ermitan hortan, orain desegindua dago baina, guk «Palazio» esaten geniogun. Festa handiak izaten ziten, Getaritik banda ekarri ta... Gerra baino lehenago.

Karnabaletan zer musika izaten zen?

Txistua, gero banda armatu zen ezkeroz bandarekin. Igandero jotzen zuten. Goizean txistularia eta gero arratsaldea txistua eta banda txandaka plazan.. Felipe Arostegik urte asko egin zituen hura dirigitzen.

Eta lehen esan duzun erdaldun hura.. ?

Hura lehenago zen. Harek armatu zuen hemen banda, baina bertako jendearekin. Hogei ta bost musiko izango ziren ordurako. Nik bilatzen dudan gauzarik onena da orduan jendeak beste ambiente klase bat zuela... elkartasun gehiago eta sanogoa eta errespetua... oraingo jendeak ez du horrelako gauzarik entzun nahi baina..

4.—ELKARRIZKETA

HERRIA: ORIO.

NOIZ: 1983, Irailaren 17.

NOR: JOSE PEÑA GOZATEGI. 1909, Martxoaren 29an., Sarobeko baserrian jaioa.



Jose Peña Gozategi.

Donostiatik etorria zen festa jarri zuena, Antonio Lapazandegi.

Direla ia 54 urte hasi ziren. Ordunik honera urtero urtero meza, bertsolariak eta soinu joleak izaten dira nagusi.

Lehen beti, gau pasa egiten genuen oilasko biltzen eta festa prestatzen. San Martin egunean hasi eta igandean bukatu, edo hobeto, festak SAN MARTIN bezperan hasten ziren.

1.^º Eguna: San Martin bezpera

Ilunabarrean kanpaiak, koeteak eta txistularien kalejirak festeei hasiera ematen zioten Ardoa ere doan ematen zuten. Barrika handi bat plazan jartzen zutelarik.

Jendea dotore jantzita ateratzen zen, traje zuriz, lepoko zapiarekin eta eskuetan kriskitinak zituztelarik beren fandangoak alaitzeko.

Gauean musika egoten zen, askotan Donostiatik etorritako soinu eta pandero jotzaile batzuk alaitutakoa.

Goizeko hirurak aldera erretiratzen zen jendea. Mutilak neskeei etxera laguntzen zieten. Dena oinez. Gero izaten ziren komeriak, oinetakoetatik lokatza kentzerakoan.

2. Eguna: San Martin eguna

Goizean danbolin eta txistularien kalejira. Ondoren meza nagusia.

Gero Lizardi aldera etortzen ginen, hamaiketakoa egitera. Aldameneko tabernetan ere ibiltzen ginen. Dantza soka egiten zen kalean soinu joleen deinuari jarraituz. Dantza hau bakana egiten zuten.

Gero bazkaria eta arratsaldean denok fandangoa eta arin arina dantzatzen genuen soinu alaiarekin.

Goizeko lauretan, gaupasari jarrai emanez, oilasko biltzeari ematen genien hasiera. Baserriz baserri ibiltzen ginen oilaskoak jasotzen.

Goizeko zazpirak aldera bukatzen genuen oilasko asko genituela eskuetan.

Urtero rekorrido berdina zen. Bi koadrila ateratzen ginen gure txapel eta guzti.

Igandean

Beste egunetan bezala, txistularien dianarekin hasten zen eguna.

Gero meza nagusia eta ondoren soinu jotzaileak eta bertsolariak izaten ziren. Egun honean bazkaria kalean zen. Larogei bat lagun elkartzen ginen bildutako oilaskoak jatera. Batzutan kanpotarrak ere gerturatzen ziren gurekin bazkaltzeko. hauek bazkaria ordaintzen zuten. Bazkal ondoan eta arratsaldean, berriro ere, bertsolariak eta soinu joleak alaitzen gintuzten. Azken eguna zenez festa nahiko goiz bukatzen zen.

Hurrengo igandean elkartzen ginen herriko gazteak festetako gastuen kontuak egiteko. Horretarako aurretik ehun peseta jarrita genituen bakoitzak eta eleizatik ere apur bat eskuratuta geneukan. Kontu hauek ateratzeko udaletxeko juntan zegoen pertsona bat jartzen genuen nagusi bezala. Hauek txandatu egiten ziren. Kargu honetan baina urteroko lana zuten beste batzuen artean.

5.—ELKARRIZKETA

HERRIA: ORIO.

NOIZ: 1983, Ekainaren 27.

NOR: FRANTZISKO BALERDI LIZASO «PRAISKU». 1913, Otsailaren 24, Igeldoko «Agj-tti»n jaioa. Bere gurasoak Oriokoak ziren. Orioko baserrira 31 urtekin etorria.



Frantzisko Balerdi.

Hasiko gara Orioko festei buruz hitzegiten. Nor da Patroia eta noiz ospatzen da?

San Nikolas, Abenduaren seian.

Zenbat egunetakoak izaten ziren zuen garaiean festa horiek?

Segun... San Pedrotan ere hiru egun jai egiten zituztela eta... itsasora joan behar zutela.. Cacereño batek hala esan omen zion:

«Tres días de fiesta y vas a trabajar? En mi pueblo quince días hacemos.

-Quince días?

- Sí, matar una cabra y quince días de fiesta.

- Matando una cabra quince días de fiesta?, aquí una cena!»

Lorentxoko mutilzaharrak esan omen zion eta Cacereño-ak kutxiloa atera.

Hemen ez da behin ere izan festa egun jakinetakorik, gero arrantzaleak erretiratzan direnean beste festaldi bat izaten da ba. San Pedrotan hiruren bat egun eta San Nikolasetan beste halakoxen batzuk eta gero hemen barriuan San Martinetan zer edo zer egiten bada kaleko jendeak etorri nahi izaten du eta.

San Nikolasetan prozesiorik izaten zen?

Prozesioa hemen Corpus Cristi egunean eta San Isidro egunean besterik ez dut ezagutu. Honako honek jakingo du.

San Nikolasetan eta San Pedrotan prozesioa egiten zen, San Isidrotan ez naiz gogoratzten.

Nola ez ba, Bandera ta guzti han ibiltzen ziren.

Zein bandera?

Baserritarrena.

Prozesio horretan nola joaten ziren, zein aurretik, zein gero..?

Lehendabizi Gurutzea, gero gizonezkoak eta haurrak gero Santua, gero klero eta atzean emakumezkoak (San Nikolasetan).

Gure aitona ta horiek San Isidro egun batean Oriora joan eta han eguna pasa zuten festa eginaz eta errondan etxera datoztela: batek ohikatu omen zuen: «Viva San Isidro» eta beste batek «Viva, baita berriz esan behar balitzake ere!». Ardoa edan eta parrandan parrandaz. Orain ez da horrelako festarik.

SAN NIKOLAS

Hiru egunetako festak izaten ziren.

Festa hau prozesioarekin hasten zen. Prozesio honetan bakoitzak bere lekua zuen: aurretik gizonezkoak eta haurrak joaten ziren, gero santua, ondoren kleroa eta azkenean emakumezkoak. Prozesioa bukatu eta gero Meza egiten zen.

Gerra aurretik festa hauek egiten ziren.

(Kontutan izanik 31 urtekin etorri zela Oriora eta baserrian bizi izan dela, Orioko festeei buruz zehaztasun gutxi ematen digu. Hau delata Orioko festa nagusiak alde batera utzi eta San Martinei buruzko informazioa jasotzea erabakitzen dugu.)

SAN MARTIN

Bi egun izaten ziren. San Martin eguna eta bezpera.

Festa hau 1935-ean hasi zen. Geroago festaren errepeticioak egiten hasi ziren.

Festa honi hasiera Mezarekin ematen zitzaion, prozesiorik ez zen egiten.

Meza bukatuta gero, eguerdian, hamaiketakoak egiten zen, gero soinu dantza egiteko. handik ordu batera gutxi gora bera bazkaria.

Arratsaldean korrika egiten zen, tiro platoa eta bertsolariak.

Udaletxeak festatan partizipatzen zuen, Mezara alkatea eta hiru konzejal joaten ziren.

Festa hau gazte jendeak antolatzen zuen, organizazioaren responsableak gazteak dira. Gazteen junta bat egiten zen, hemen presidente bat ofiziala zen, eta beste hiru laguntzaile.

Kuadrilak ere ateratzen ziren lakera, hamasei urtetik gora, edozein edadetakoak, baita ere ezkonduak.

Oilasko biltzeak San Martin bigarrenegun egiten ziren eta egun berean baserri batetan jaten zen. Pasakaleak, trikitixa, bertsolariak eta mutil ardoa ere egiten ziren, har sartzeko behar zen kondizioa soltero egotea zen.

Festatako jazkera ez zen batere espeziala, bakarrik lepoko zapia eramaten zen.

Festa hauetan, soinu bat bezela palanka erabiltzen zen, baina hau ez zihoan bakarrik, baizik botilak eta tartarataz lagunduta.

Palanka airean edukitzen zen txintxilik hobeto entzuteko (palanka altzairuzkoa zen).

Palanka aizkeneko sagardoak egin eta gero egiten zen zelebrazio modura.

Dultzaineroak ere ba zeuden herrian. Erroneria jaiero egiten zuten, iluntze aldera. Ordu pare bat izeten zen.

San Juanetan ez zen ezer berezirik egiten, sua egin eta ermitara joan bakarrik.

San Martin festaren inguruan ere beste festa batzuk egiten ziren: San Nikolas eta Salvatore (Abuztuaren 6an).

Auresku dantza egiteko soka batean jartzen ziren, 12 neska eta 12 mutil.

Aukeratzen zen soka honetan zeintzuk dantza egin aurrean eta zeintzuk atzean.

Urtero hiru neska bakarrik aukeratzen zituzten eta horregatik pikeak izaten ziren.

Gero neskek dohain edukitzen zuten afaria. Aukeratu ondoren, neska eta mutilak, plaza-
ren erdian dantza egiten zuten. Denek alpargatak eramaten zituzten. Zezenak ere izaten ziren.

Herria festatan banderitekin apaintzen zen.

Erroneria ere egiten zen. Festa honen gastoak udaletxeak ematen zituen.

Eguberri festatan haurrak ospatzen zituzten gehienbat: abesten, dirua eskatzen zuten.

Data horietan neskame eta morroiak usten zituzten bere herrietara joaten.

Pelota partiduak egiten zituzten, baina ez zegoen frontoirik, elizako paretetan jolasten zen.

6.—ELKARRIZKETA

HERRIA: ZARAUTZ.

NOIZ: 1984, Azaroaren 14.

NOR: ANTONIO ALBERDI GARATE. 1911. jaioa



Antonio Alberdi.

San Pelaio jaia. 26-an

Proseziuan joaten ziren kalean. Inurritzan San Pelaio elizan txertatu eta gero joaten ziren herrira, parrokira, seriotasunik gabe, apaiz batek ekartzen zuen erliki San Pelaiorena, erlikia hemen egoten zen gordeta.

Noiz hasten zen San Pelaio jaia.

26an beti, baina hori 25-an, egite zen, horaindik ere, bi egun irauten ditu, eguna eta bigarrena.

Ze ordutan hasten zen. Arratsaldean?

Inurritzan besperak kantatuak izaten ziren, hirurak aldia eta, etortzen ziren laurak aldia bueltan 25.an, eta gero San Pelaio egunean. Goizian Diana bandak jotzen zuen, txistulariak eta... herrian ebiltzen ziren bueltan..

Gerra aurretik ez zen egongo auzo hau?

Ez, ez, gerra haurretik auzo hau desierto balegoen bezela zen.

Prosezio hartan nola joaten ziren?

Ayuntamientoak joaten ziren aurretikan, autoritateak, eta gero emakumiak eta...besperan txistulariak bakarrik, herrikoak.

Hemendik harutza joate horretan musika jotzen ahal zen?

Besperan ez det uste, Txistulariak bakarrik, herrikoak bakarrik.

Prosezio hori egiten zenean Udaletxekoei laguntzen ahal zitzairen berriz harutza edo berriek beren kontura joaten ziren?

Banda bertakoa zen, berrogei bat izango ziren, banda betidanik esagutu dut Zarautzen, bi banda edo hiru banda zeuden Zarautzen. Banda municipala zen uniforme eta gusti, zerbait kobratzen zuten zinbolikoki. Errepublika etorri zen, ezkerreko jenderik ez zegoen garai hartan, bandak jotzen zuen jaiero Junioan erdian hasi eta Septiembrea azkenera arte izaten zen egunero, aurreneko amabost egunetan, jaia, larunbata eta osteguna izaten zen musika, eta Julioan egunero. Eizagirre alkate zegoela ostegunean bakarrik jotzen zuen konzertoa dantzarik gabe, eta jende gazteak protestatu zuen,

Txistularien banda izaten zen?

Banda zen, horiek debalde, udaletxean laguntza bazuten, Dultzaineroak kanpotik etortzen ziren (Estellakoak), 28-an.

Banda eta txistularien artean bazegoen kompetenziarik? edo arremn normalak ziren?

Ondo, bandak izandakoak dira, hemen Zarautzen zen Banda direktorea horrek zeukan obligazioa aurrei solfeoa erakusteko, eta horrek kobratzen zuen jorjala.

Dantzariak ze jazkera ematen zenuten?

Alkondara zuria, praka zuria, alpargata zuria zinta gorriakin, gerriko gorria, eta txapela ere gorria.

Gerra aurretik ze errepertorio erabiltzen zenuten?

Makil dantzak, aurrezkua e.a.

Jazkera espezialen bat edo jazten ahal zen festa denboran?

Gure gazte denboran ez zen eramaten orain eramaten den alkondora... fiesta baska egunean bakarrik, blusa. Dantza lotua egitea debekatua zen.

Karnabalak?

Karnabalak izaten ziren, Ostegunean hasten ziren, koadrilak antolatzen zuten, herriak egiten zituen erropak, konparsak egiten ziren, kaldereruak.

Organizazioa nork antolatzen zuen?

Udaletxeak egiten zuen. Konzejalak... egiten ziren Dantzai-txikiak, orduan debalde egiten ziren

Hemen ez zen egingo puskabiltzerik edo... beste herritan egiten zen festa besperan edo inguruetako baserritan erronda batedo... oilasko biltzea edo...

Oilasko biltzea egiten zen herrian bertan, San Pelaiotan, hemen bertan (Iñurritzan), geure etxean bertan, bailarak pasatzen zituen, konejo, oilasko, e.a. San Pelaiotan edo jai handia bazan beti aureskua.

Biltze horretara zeintzu joaten ziren?

Gazteak beti, guri erakutzi zigunak, hura etortzen zen guri erakustera. Hori zen ardatza luze bat, han jartzen ziren lukainak, oilaskoak, koneju... eta gero bazkaria egiten zen, Iñurritzan egiten zena berdin, San Pelaio egunean egiten zen jate hori, baina Iñurritzakoak bakarrik, bigarrenean arratzaldean, Aureskua dantzatzeko, Txistuakinetan jotzen zen Zortzikoa. Oraindik egiten da.

San Pelaio egunetan egiten ziren dantzak?

Hori San Pelaio egunean bakarrik egiten zen, makildantza, aureskua e.a. egiten ziren taldeko jendeak. Aureskua izan da garrantzikoena, seriozkoa. Herriko banda dantzatzeko errepertorioa, eta horiek jarraitzen zuten zortzirak arte, egunik luzienak izaten zen, eta gero kalean pasa-kailea egiten joaten ziren, bandakin, ez zuten obligaziorik banda osoa joateko. Seiterdietan jotzen zuten azkenengo pieza eta gero hamarretan berriz egiten zen beste saio bat, handik etortzen ziren plazaraino, eta hemen jotzen zuten, bukatu ondoren afaltzera, afaldu ondoren etortzen ziren Iñurritzako gaztiak, kalejiran, gero txistua joez plaza sartzen ziren, hola izaten zen aurreneko San Pelaioak. San Pelaio bigarrenean berdin. Karnabalak bakarrik herrian egiten ziren, kareta eta galerazi egiten zituzten.

Fiestak noiz izaten dira?

Irailan izaten dira, Amabirjina eguna, Abustuko 15an eta San Roke eguna, biek egiten dira.

Ama birjiña eta San Roke egunean ze izaten zen?

Hor izate zen, jolasak, moilan, kukainak, ari-jokoa. Ama birjina egunean, estropadak, bi trainero, San Antonio eta Golondrina Zarautarren artean. Salbea ere, hau besperan, koroa oso ona dago. Horain Eliza berak ere utzi du.

7.—ELKARRIZKETA

HERRIA: ZARAUTZ.

NOIZ: 1984, Otsailaren 2.

NOR: VALERO ODRIOZOLA ROTETA. 1902, Urtarrilaren 29, Zarautzen jaioa

JOSE LANDA. 1920, Urte inguruan, Zarautzen jaioa.

VICENTE LAZKANO OLASKOAGA. 1920 urte inguruan, Aizamazabalen jaioa.
Aspalditik Zarautzen bizi da.

URTEBERRI

Urteberriko jaia zer izaten zen? Banda irteten zen ala beste ospakizun batzu egoten ziren?

Goizetik banda irteten zen hamarrak baino lehenago, meza nagusia baino aurretik. Udaletxeko atarira joan eta handik kontsepetik, elizara joaten ziren udaletxeok laguntzen. Hamaitetan meza nagusi ondoren, irten eta berriz Udaletxera entregatzera joaten ziren. Hamabiak aldean kontzertoa. Gero arratsaldean dantza ere egoten zen.

Pasodoble hori, bertan jotzen zena, beti berdina izaten zen?

Ez ez, ez zegoen bat bakarra. Dena dela hemengo banda oso famatua izan zen. Eskudero konpositorea nerekin jotzen zuen, harek flautina eta nik rekintoa.

Zein zen garai hartan bandako direktorea?

Luzia deitzen zena. Baina aurretikan beste bat izan ginen, Donostiako Banda Munizipalean jotzen zuen batek; Afrikara joan zen soldaduskara eta etorri eta gero 1923 an Zarautzera etorri zen zuzendari bezala. Bere izena ENRIKE GONZALEZ ARROITAJAUREGI eta honen aurretik LUIS GURRUTXAGA, hau ere donostiarra zen.

Banda zeinena zen? Nork mantentzen zuen banda hori?

Udaletxearen eskuetan zegoen. Soldata sinboliko bat izaten zuten musiko guztiak.

Bizitzeko hainbeste?

Ez, lana egin behar aparte. Musika jotzeko afizio handia izan behar.

KANDELARIA

Esan duzu gaurko egunean, kandelariaren jaiari zerbaitekin zela?

Bai jai erdia egin zen. Arratsaldean eta gauetz bandak jotzen zuen Santa Barbara egunean bezala.

IHAUTERIAK

Zer egiten zen eta nolako izaten ziren karnabalak edo ihauteriak?

Orduan ere, gazte jendea hasten zen eta disfrazak egoten ziren. Dantzariak ere parte hartzen zuten.

Kanpotik etortzen zen jendea. Erdiak hemengoak eta besteak kanpokoak. Astelehen arratsaldean jai izaten zen eta hirugarren egunean jaiak bukatzen zen.

ASTE SANTUA

Zer egiten zen aste Santuan?

Ostegun Santuan, arratsaldeko prozesioan, Bandak jotzen zuen martxa funebrereren bat. (Valerok eta Josek abesten dute horren doinua).

Gero Paskua bezperan arratsaldean kalejira egiten zen eta Paskua egunean goiz goize-tik dianak jotzen zituen bandak. Gero meza ondoren kontzertua egoten zen.

SAN PELAIOKO JAIK

Ze eginkizun izaten zuen bandak jai hauetan?

S. Pelaioko jaietan bandak jotzen zuen kalejirak eta bertan Iñurritzako ermita inguruan. Berdin egiten zuten bigarren egunean. Joan eta etorrian jotzen genuen.

ANDRAMARIAK

Zer egiten zenuten egun honetan?

Goizean diana jotzen genuen. Gero eguerdian meza ondoren, kontzertoa. Egun horretan beste herrietatik etortzen zen banda bat. Zarautzera Eibarko banda etortzen zen eta gero San Juanetan hemendik Eibarrera. Hau urtero egiten zen.

Eta urrengo egunean zer?

Garai hartan urrengo eguna S. Roke, ospatzen ez zena; baina gero S. Roke eguna lantegietan ordaintzen hasi ziren eta handik aurrera jai fijo bezala jarri zen.

Udan egunero jotzen al zenuten?

Bai egunero, gauetan. Nola «beraneante» asko egoten ziren eta eurentzat jotzen gifiuen Gero hauek, musiko bakoitzari ordaintzen ziguten zerbait eta hortik aparte nahi genuen janari eta edari hartzen genuen.

EUSKAL EGUNA

Eta Euskal Eguna edo «romería vasca» noiz eta nola hasi zen?

Jai aurretik ez zen ospatzen. Gu gero joaten ginen, Lasarten ospatu egiten zen euskal egunera eta pentsatu genuen zergatik ez egin holako zerbait gure herrian?

Jai hau irailaren 9an ospatzen zen. Lehendabizi 1924. urtean.

Flores Kaperotxipi, Patxi Elustondo, ni Valero Odriozola eta besteren bat zerbait pentsatu eta egin.

Zer egiten zen egun horretan?

Hainbat eginkizunak egiten ziren: dantzak, musika eta baita desfileak karrozekin. Lehen-dabiziko urtean «estaiak» prestatu genituen eta bigarren urtean, dema harriak, kartoiak eginak.

SAN ISIDROAK

San Isidroetan zerbait egiten zen?

Bai nahiz eta baserritarren jaia izan. Hauek etortzen ziren herrira. Bakoitzak ekartzen zuen: batek lurra, beste batek zimaurrea, besteak egurra.. eta bakoitzak zerbait. Gero bakoitzak besteak ekarritakoetatik zerbait hartzen zuen bere etxera eramateko, bedeinkatu ondoren.

Baita ere maiorazgoak zerbait ekartzen zuten jatekoa, meza ondoren hartzeko.

Eta konkurtsorik egiten al zuten?

Ez hori. Alarde musikala bai.

DANTZARIAK

Ba zegoen dantzari talde bat establea herrian?

Bai garai hartan ba zeuden dantzari onak. Hemengo dantzari on eta ospetsua, Antonio Alberdi izan zen. Hura zen probintzian hobereena, bai sueltoan bai aureskuan.

Kanpora joaten al ziren?

Bai Donostiara edo beste tokietara.

Hortik aparte auresku zaharra hainbat dantzarik dantzatzen zuten oso ondo; Bixente Txerribuztan, Etxaniz, Mateo,.....

8.—ELKARRIZKETA

HERRIA: GETARIA.

NOIZ: 1986, Apirilaren 26.

NOR: ANTONIO AZKUE. 1911, Getarian jaioa.

MARTINA OLAIZOLA. 1912, Aiako Urdanetan jaioa. 1919tik Getarian bizi da.

MANUELA ARREGI. 1905, Getarian jaioa.

MARIA AZPEITIA. 1927, Getarian jaioa.



Ezkerrik eskubira: Martina Olaizola, Maria Azpeitia, Manuela Arregi.

Urtean zehar egiten ziren festak Getarian, gerra aurreko:

- 17an, San Antonio
- Uztailaren 22an, Madalena
- Abuztuaren 6an, San Salvador
- Irailaren 7an, Elkano

- Ekainaren 29an, San Pedro

Nahiz eta San Pedro oso festa famatua izan, San Salvador da Getariko patroia.

SAN SALBADOR

1.go Eguna: San Salvador bezpera

7 t'erdietan buruhandiak, kalejira eta danborileroak hasten ziren, koeteak botatzen. Herriko plazan dantza egiten zen.

2. Eguna: San Salvador

Goizetan gauza gutxi egoten zen. 9etan danbolineroak eta herriko txistulariek diana jotzen zuten.

10etan Udaletxea musikarekin mezatara joaten zen. Gero hamaiketako egiten zen udaletxean hango sala batean. Hori bukatu eta kontzertua hasten zen. Bazkaldu ondoren pelota partidua eta aureskua plazan: jazkera berezirik ez zuten erabiltzen eta korro egiteko, eskutik heldu beharrean, zapi batez heltzen ziren.

Dantza egiten zen plazan, herriko bandarekin. Atsedendian txistulariek jotzen zuten 10 edo 15 minututan eta 12tako denok etxera, neskak batez ere.

3. Eguna

Diana, buruhandiak, danborileroak, hiru txistulari (Emeterio, Isasti eta Angel Aizpurua) eta herriko bandaren kontzertua.

Arratsaldean antzarrak: 16, 18 urteko mutilek hartzen zuten parte.

Estropadak ikustera jende asko joaten zen.

Musika bazegoen plazan, banda eta danbolinak txandakatu. Afaldu ondoren berriz dantzatzera.

4. Eguna

Hirugarrena bezala. Azkenengo eguna zen. Kalejira batekin gaueko 11etan bukatzen zen.

SAN PEDRO

1.go Eguna: San Pedro bezpera

Kalejira danbolineroekin eta gauean musika. Ez zegoen gauza haundirik.

2. Eguna: San Pedro

Goizean diana txistulariekin, meza nagusira joan. Prozesioa egiten zen jendea era hone-tan zegoelarik: koxkorak edadekoekin, S. Pedro elizakoekin, udaletxea eta atzetik emakume-ak. Elizatik udaletxera musikarekin joan eta han hamaiketako egiten zen.

Arratsaldean partidua.

Goizero, hiru egunetan, diana egiten zen. Kanpotik etortzen ziren jotzera.

SAN ANTONIO

Festak inportanteak ziren eta Zumaiaetik eta Zarauztik jendea etortzen zen.

1go Eguna

Goizean: diana, kalejira, buruhandiak, meza nagusia..

Bertsolariak izaten ziren udaletxeko balkoian (Basarri eta Ustapide ziren famatuenak). Oilar, dema, haizkora..., jokuak egiten ziren.

2. Eguna

Goizean diana eta dema-frogak edo oilar-frogak egiten ziren.

Arratsaldean bandak jotzen zuen. Ilunabarrean bukatzen zen. Afaldu ondoren ez zegoen ezerre.

Bixigu erreta jatea eta sagardoa edatea sagardotegietan zen ohitura. Kanpoko jendea arratsaldean etortzen zen afari-merienda egitera; esaera da: «San Anton bisigu un montón».

MADALENA

Emakumeen festa zen, gizonak dantzatzera konbidatzen zituzten.

Goizeko 11etan aurrekua emakume batek dantzatzen zuen gizonen dantza berbera eginez.

Arratsaldean dantza danbolineroeekin. Gauza gutxi zegoen. Gizonak itsasoan zeuden eta.

ELKANO

Bost urtean behin eginez, 1923. urtean hasi zen festa hau. Garai hartan, bostak aldean, itsasontzi handiak eta beleroak jendez beteta izaten ziren. Txistuak eta kanpainak jotzen, tiroak botatzen, kandelak argitzen..

Emakumeek karrozak prestatzen zituzten. Lehenengo elizara eta gero udaletxan joaten ziren. Festa baino, oso serioa zen. Madrilgo jendea etortzen zen Elkanoren imitazioia ikustera.

Udaletxeak antolatzen zituen festak.

Hauetatik aparte, urtean zehar beste festa batzuk egiten ziren.

SAN JUAN

Bezperan: ilunabarrean, sua egiten zen. Musikarik ez zegoen. Sua inguruan, saltoka, abesti hau kantatzen zen: «sartoa eta garia gorde, sorginak eta lapurrak erre».

SANTA AGEDA

Neska-mutilak ateratzen ziren makilekin abesten, dirua eskatzera.

Baserriz baserri joaten ziren arrantzak eta beste janari batzuk jasotzen, gero merienda edo bazkari bat egiteko.

Kuadrilak modu berezi batetan jantzita ibiltzen ziren: blusa eta makila beharrezkoak ziren.

EGUBERRIA

Olentzero ez zen egiten.

URTE-ZAHAR EGUNA

Ez ziren kantatzera ateratzen.

IÑAUTERIAK

Igandean, arratsaldean musika zegoen.

9.—ELKARRIZKETA

HERRIA: GETARIA.

NOIZ: 1986, Apilaren 26.

NOR: EBARISTA BIKUÑA. 1911, Getarian jaioa.

PILAR ITUARTE. 1911, Getarian jaioa.

JUAN GARCIA. 1914, Getarian jaioa.

TERESA ANDONEGI. 1915, Getarian jaioa.



Pilar Ituarte.



Teresa Andonegi.



Juan Garcia.

SAN SALBADOR

Abuztuaren 6an.

Bezperan

Iluntzean kanpaiak, koeteak eta kalejirakin hasten ziren jaiak.

Jotzen zuten banda eta txistulariak bertakoak ziren eta gaur egungo abestiak kantatzen zituzten.

Txistularien zuzendaria Emeterio Isasti eta danborroa Anjel, jaiero jaiero jotzen zuten haurrek atzetik eramaten zituztelarik.

Gaeon goizerarte txistua eta Banda jotzen zuten.

Salbador eguna

Goizeko zazpiretan diana eta kalejira herriko banda eta Estellako dultzaineroekin.

Hamarretan meza nagusia eta gero plazan kontzertua eta harrijasotzaileak.

Bostak aldera pelota partiduak eta bukatzeko soinua. Festa honetan asko edaten zen; mutilek konbidatzen zuten. Jaiak udaletxeak antolatzen zituen.

2. Eguna

Goizean, beste egunetan bezala: meza, kontzertua..

Arratsaldean karrozak bost erreginekin agertzen ziren. (Lehenbizikoa 1922-9-6an egin zen). Erreginak bost kontinenteko errepresentateak ziren. Bost urten behin egiten ziren karrozak, herriko jendeak eginak.

Trajeak gobernuak egiten zituen eta bertarako geratu ziren.

Partaideak apaintzeko kanpotarrak etortzen ziren.

Lehendabiziko erreginak 15 urte zituen eta plazan aukeratu zuten.

3. Eguna

Antzarrak, sokamuturra eta haurrentzat jolas batzuk egiten ziren eta betiko moduan meza eta kontzertua. Arratsaldean pelota partiduak.

Abuztuaren 6an beti bukaera zen: goizean pasakailea eta gero marmitakoa.

SAN ANTON

Urtarrilaren 17an.

Goizean kalejira (buruhandiak eta jiganteak), meza eta bertsolariak (Txirrita, Lizaso, Xalbador, Uztapide, Basarri...).

Neska-mutilek kaleko jantzi normalekin aureskua dantzatzen zuten udaletxe aurrean..

Kanpoko trikitrixa etortzen zen, baina banda herrikoa zen.

Zumaiako jendea bixigua parrilan erreta jatera eta txakolina edatera etortzen zen edo bestela bixigua erosi eta etxera eraman.

SAN PEDRO

Goizean diana. Marinelak zuriz jantzita ateratzen ziren eta dantzatu egiten zuten.

Gaeon, musika egoten zen

MADALENA

Emakumeek dantzatu egiten zuten aureskua. Bakoitzak bere arroparekin, mantala kendu eta dantzatzera.

EGUBERRIA

Eguerdiko hamabietan mutilek, dantzariz jantzita (alkandora eta prakak zuri, txapel gorria eta gerrikoarekin) dantzari txikien eguna zen.

IÑAUTERIAK

Bakoitza nahi zuen bezala, joaten zen jantzita. Mutil guztiak «sobrecama transparente» bat gainean jantzi eta emakumeen itsura hartzen zuten.

SAN MARTIN

Azkizu auzoan ospatzen zen. Goizean meza nagusia. Txistulariak eta kanpoko trikitrixa izaten ziren.

SAN PRUDENTZIO

S. Isidro egunean ospatzen zen. Baserri inguruko auzoetan, meza ondoren bedeinkatu egiten ziren ogia eta haragia, gero salda ematen zuten.

Gaur egun ez dago dantza talderik, bakarrik txikiak daude.

10.—ELKARRIZKETA

HERRIA: AIA.

NOIZ: 1985, Ekaina.

NOR: ANDRES ARRILLAGA AGIRRE. 1911, Aian jaioa.

MARIA UNSAIN ARRUTI. 1913, Aian jaioa.

«Argin» baserria



Andres Arrillaga.



Maria Unsain.

FESTA NAGUSIAK: SAN DONATO ABUZTUAREN 7A.

Festa lau egunekoa izaten zen. San Donato, San Lorenzo, San Donatoren urrengoa eta ondorengo igandea.

Ardoa gelditzen zen bitartean Mutilardokoek festa luzatzen zuten bere kontura bainan ez zegoen besteentzako festarik.

San Donato bezperan Mutilardoa irekitzen zen eta soinua hasten zen.

San Donato egunean Meza nagusiaren ondoren mutilak (solteroak) ateratzen zuten Dantza soka. San Lorenzo egunean berriz, ezkonduak ateratzen zuten. Egun honetan Alkateak eskutik ateratzen zuen lehendabizi dantzatu behar zuena.

Arratsaldeko festa bostak aldera hasten zen.

Hamarrak aldera «su artifizialak» izaten ziren. Tarteka danbolina eta txistua jotzen zen eta «su artifizialen» ondoren berriz eskusoinua izaten zen gehienera gaueko hamabiak arte.

San Lorenzo egunean berdin eta egun hontako azken «trakarekin» bukatzen ziren festak.

Festa egunetan goizean (seiak aldera) txistulariak diana jotzen zuen herrian.

MUTILARDOA

Hamalau urterekin sartzten ziren. Aurreneko urtean erdia bakarrik ordaintzen zuten. Ezkondu arte edo bestela berrogei urte inguru arte izaten ziren sozio. Ez zen asko pagatzen hamar peseta, hamabi gehienera festa guztitarako.

Mutilardoko GILTZEROA.

San Inazio egunean Junta egiten zen ardoa probatuz giltzeroa izendatzeko. Jeneralean jakintsuxamarrak jartzen ziren edo beste urtetan ondo egindakoak. Bi giltzero jartzen ziren normalean, bat kalekoa eta bestea baserritarra. Ardoa zahatotan jarri, mutilardoa ireki eta itxi eta diru kontuak eramatea ziren hauen lanak. San Lorenzo egunean pagatzen zen mutilardoko kuota.

DANTZA

Dantza librea eta Dantza soka.

Dantza librea festetan eta igandero izaten zen.

Dantza soka festa egunetan bakarrik. Ez zen oraingoaren iguala «Azari dantzak eta horik berdin egiten ziren bainan dantza soka diferentexamarra zen. Neskaren aurrean estilo berdina egiten ziren bainan haruntza honuntza gehiago ibiliz. Oraingoa gehiago gustatzen zait, egokiago doa musikarekin eta errezagoa da.

Musika oraingoaren iguala zen.

«San Donato egunean Dantza soka ateratzen nuenean tabernatik eramaten nuen neska eta gero bazkaria tabernan ematen zidan.»

Dantza librea fandangoa eta arina izaten zen orain bezela.

«Gerra eta gero, Don Hilario apaiz zegoela, kartzelara eraman zituzten batzuk baltsian ibiltzeagatik. Alkatea (Agerrekoa) saiatuko zen kartzelara ez eramateko bainan erretoreak galezari nahi zuen. Olazabal Txikiko neskak edaderik ez zuela (15-16 urte) eta bere aita eraman zuten ordez. Urrungo urtean Guardia Zibilak ekarrita ibili ziren. Jendea haserre gelditu zen oso».

Dantza soka atera behar zuenak «mil rayasko» galtzak, alpargata txuriak, alkandora txuria eta txapela eramaten zuen.

JAZKERA

Bakoitzak al zuen onena jazten zuen. Gazteak pañueloa lepoan. Guk nazionalista eramaten genuen: txuri, gorri eta berdea.

Gero naparrak etorri zirenean Franco denboran erre egin genituen.»

MUSIKA

Danbolin txistua eta soinu jolea izaten ziren.

Txistularia oraingo sakristauaren aita zen. Soinu joleak Billabonatik eta horrela etortzen ziren. Billabonakoak musika zuen ate pianoko soinu handiak etortzen zen, oso ona zen hau.

Bestelakoak musikarik gabe jotzen zuten

«Ttunttuna jaiero izaten zen, soinua berriz festetan bakarrik.

Jendeak soinua nahiago izaten zuen, Dultzaineroa etorri zen behin Andoiandik. Oso soinu ederra dultzainarena. Niri ikaragarri gustatzen zait. Nekosua izango da jotzen. Andoaingo hura kañaberakin ibiltzen zen pitak egiten. Naparrak ere etorri ziren, Hauek bi ziren.»

«Argutzekoak ere bazekien soinua jotzen. Bi pieza bakarrik. Gogo zuenean bere soinua hartu eta ardoa eran eta zekizkien bi piezak jotzen zituen.»

Kanpaiak jotzen ziren festa bezperan. «Kanpai bueltak eta doblatzeko beste handi horiek izaten ziren.»

San Donatotan korrika antolatzen zen eta baita ere zinta jokia asto eta bizikleta gainean.

«Bertsolaririk ez zen izaten. Bertakoak tabernan moskortutakoan, orain bezela.»

ASZENSIO EGUNeko FERIA

«Peria izugarria egiten zen, jendea ikusgarri. Esaten zuten Gipuzkoa guztiko erreminta peri handiena zela. Hor egoten zen atxur, sega, ikuilu atxur, sarde, ardi txintxarri, zaldia behar dituzten frenu, silla, gurdia ernsteko zera, beno, danetik. Jendea prozesioan bezala etortzen zen oinez, kabitu ezinik. Tela eta horrelakoak ere asko izaten ziren.»

Ganadurik ez zen izaten.

Gerra baino lehenago bukatu zen peri hau.

SANTA AGEDA

«Nere garaietarako alkateak hemen Aian eskea galerazi zuen.

Zarautzarrak eta Errezidarrak badakit ibiltzen zirela eskean.

Hemen egunez mutiko eta neska koskorrik ibiltzen ziren, baina gaueko eskea, handiak egiten zutena, bertsoak kantatuz, soinu jole, danborrero eta horiek galerazi egin zituen.»

SAN ISIDRO

«Lehen lehenago ez zen festarik. Oraingo kontuak dira horiek.»

LAURGAINGO SAN MIGELAK

«San Migel egunean herritik bi mutil joaten ziren dantza soka Laurgainen ateratzera. Ni ere askotan joana naiz dantza soka ateratzera. Laurgaingo Palazioko Maiordomoak ekartzen zituen bi neska aurreko eta atzekoarentzat. Eguerdian eta arratsaldean atera behar zen dantza soka. Bi egunetako bazkari eta afaria dabalde genuen. Jornala ere ematen ziguten. Feste-tarako ere Maiordomo bat izendatzen zen. Hau txandakatzuz joaten zen etxetik etxera eta baserritik baserrira. Etxeko nagusia izaten zen Maiordomo eta urtero kanbiatzen zen. Maiordomo hau Alzola eta Urdanetara joaten zen eskean, bakarrik.

Hangoak ere etortzen ziren Laurgainera eskean bere festetan.

Maiordomoak ere eramaten zituen dantza ateratzaileak herritik Laurgainera.»

OILASKO BILTZEA

Festa egunaren bigarreanean «oilasko biltzea» izaten zen. Urrengo egunean bildutakoa jaten zen. Oilasko biltze hau laurgain, Urdaneta, Alzola, Santiyo eta San Pedro auzoetan egiten zen.

Herrian ez zen horrelakorik egiten. Mutil koadrila itxaferoak tiraz eta soinua jotzen joaten ziren.

«Behin ikusi dut Laurgainen «oilasko joko» egiten. Ezpatarekin dantzan joan eta gero oilaskoari lepoa moztu.»

Korpuseko prozesioa

«Gurutzea, akolitoak, Jauna paliopean, jendea. Estandarteak ere eramaten ziren: Luistarrrena, Mariaren alabera, Jesusen bihotzekoa, 3.n ordenekoa. Aiuntamentu osoa joaten zen trajez jantzita, korbatarik gabe.»

AUZOETAKO FESTAK.

Iturrioz San Juanetan.

San Pedro San Pedrotan.

Santiyo Santiyotan.

Urdaneta San Martinetan.

Laurgain San Migeletan.

Alzola San Romanetan.

11.—ELKARRIZKETA

HERRIA: AIA.

NOIZ: 1985, Ekaina.

NOR: RESURRECCION MANTEROLA. 1905, Aian jaioa.

INAZIO MARIA ALDAI. 1903, Errezilen jaioa. Aiara ezkondua.



Resurrección Manterola.



Inazio M. Aldai.

Urtean zeharreko festak:

Festa Nagusiak. San Donato Abuztuaren 7an, Aiako kaskoan.

Santiyotan, Erdoiztan eta Santiyon,

San Pedrotan, San Pedro auzoan.

San Migeletan, Laurgainen.

San Romanetan, Alzolan.

San Martinetan, Urdanetan.

San Juanetan, Iturriotzen.

FESTA NAGUSIAK: SAN DONATO

Festak hiru edo lau egunekoak. Bezperatik itxaferoak eta kanpaiak. Festak San Donato egunean, urregoan eta ondorengo igandean izaten ziren.

San Donato egunean Meza Nagusia. Ondoren «danbolin txistua» eta «filarmonika». Arratsaldean (hiru terdiak aldera hasita) berriro musika. Ilundutakoan «su festak» izaten ziren.

«Txistuak eta filarmonikak txandaka jotzen zuten eta jendea gogotikan dantzan». «Guk ordubeteko bidean genuen etxeraino eta eguzkia jeisten hasten zenean etxera abiatzen ginen, orduan ez genuen erlojurik...»

Festak «su festako» azken trakarekin bukatzen ziren besterik gabe.

San Donatoren urregoa berdintsu joaten zen.

GAZTEEN ANTOLAKUNTZA: «MUTILARDOA»

Herriak ordaintzen zituen musikoak eta horik besta guztia «Mutildokoek» antolatzen zuten. Aiuntamentua Meza Nagusira joaten zen eta su festak ordaindu.

Hamalau urte betetakoa erdia ordainduz sartzen ziren mutilak «mutildoko» elkartean eta ezkondu arte sozio izaten ziren.

Ezkontzen ez zirenak berrogei urte inguruz hartzen zuten erretiroa.

Sozio zirenak (mutil guztiak) dirua jartzen zuten (ez dakite zenbat) ardoa erosteko. Ardo hori festa egunetan beraiek edaten zuten eta joaten zen jendeari eman ere.

San Iñazio egunean biltzen ziren ardoa probatzeko eta «giltzeroa» aukeratzeko. Jeneralean suertatu egiten zen. «Giltzeroak» diru kontuak eramaten zituen, ardoa zahatota jarri eta eskeini eta «mutildoa» ireki eta itxi egiten zuen.

DANTZA

«Trikitia» eta aureskua izaten ziren.

Aureskua ia festa egun guztitan ateratzen zuten behin edo bitan. Oraingoaren antzekoa izaten zen baina «salto gehiago, alde batea eta bestea gehiago ibiliz, biziago... soinua, oraingoaren igualtsu izaten zen.»

Mutilak diferentzi pixka bat baldin bazuten festak beste alde batera egiten zituzten igual. Guk ezagutu genuen zazpi auresku ateratzea arratsalde batean. Bi «mutildoko» ziren, bat konzeju aldean eta bestea Kanuene aldean. Hangoak aureskua atera eta hauen mutildoren aurretik pasa, hauek aldrebez eta horrela atera zituzten zazpi arratsalde batean.»

San Lorenzo egunean Aiuntamentuko batek ateratzen zuen aureskua eta ezkonduak bakarrik dantzatzen zuten.

«Balsian» egitea debekatua zegoen oso. Behin (gerra aurretik) batzuk hasi omen ziren eta erretorea kejatu. Don Hilario zen erretorea. Nonbait multa jarri omen zieten baina ez omen zuten pagatu. Orduan alkateak (Agerrekoa) kartzelara bidali zituen. Astebeteko kartzela izan zuten Ondarretako kartzela zaharrean.

Bost neska, bi mutil eta gizon bat (hau bere alabaren ordezkari joana, alabak hamasei urte besterik ez zuelako) omen ziren gutxi gora behera, Kartzelan egondako bi, gerora ezkondu egin omen ziren.

Zizurkildarrak libre zuten «balsian» dantzatzea eta etxerakoan alkatearen etxe aurrera joan eta soinua joaz «balsian» jardun ziren itxaferoak botaz.

Gerra aurretik izan zen dantza talde bat. Gero utzi eta orain arte ez da gehiago izan.

MUSIKA

Danbolin txistua bertako txistulariak jotzen zuen (bakarrak) festa egun guztitan. Herriak ordaintzen zion zerbait. «Guk beti festa debalde ezagutu dugu». Sakristau zaharra (hila aspaldi) eta gero Jose Galtxa, aguazila (hau hil berria) ziren txistulariak.

Filarmonika jotzera inguruko herrietatik etortzen ziren. Dena dela «bertan ere nonnahi, edozein baserritan ziren soinu-joleak.» Usurbilgo dultzaineroak joan omen ziren urte batean San Donato egunean.

Orkestina eta horrelakoak ez dira urte asko hasi direla. «Honera lehendabizi Saltxipia ize-na zuen bat etorri zen «kornetinakin» eta horiekin, hura etorri zenean orduan bai alaitu jendea, txistulari eta horien odoan beste poz bat...»

Ohitura zen beste herrietako parienteak festa pasatzera etortzea, Azpeitia, Errezildik,...

Bazkariak, zopa, garbantzua txorixokin, aza odolkiakin, haragia edo egaztia. Lagunarteko bazkari gutxi egiten zen festetan. Jendea al zuen ondoen jatzten zen, trajea eta horrela ahal zuenak. Gazteak pañueloa lepoan.

Korrika jokoak egiten ziren herriko semeen artean. Zinta jokoak asto eta bizikleta gainean izaten ziren ere, bestelako jokorik ez zen izaten.

Bertsolarietako afan gutxi omen zegoen, tabernetan eta sagardotegian saiatu bai bainan plazan eta horrela ez.

SANTA AGEDA

Eskea egiten zen bainan gero helduei galerazi egin zieten herrien eskean ibiltzea. Herrian umeak ibiltzen ziren bakarrik (14 urte bitartekoak). Gerria denbora inguruan galerazi zuten helduen eskea kalean. Baserrietan arraultza, txerriki eta jeneralean dirua biltzen zuten. Bildutakoarekin gero «Santa jana» egiten zuten. Hontan neskak ere parte hartzen zuten naiz eta eskean mutilak bakarrik atera.

Gabonetan ez zen eskerik.

Urteberritan ere ez.

Karnabaletan umeak (batzuk) jatzten ziren, bainan ez zen besterik izaten.

ASZENZIOA

Urteko feria izaten zen. Inguruko handiena. Bertan erropa, tresneri, harreminta, kinkile-riak, jostailuak, goxokiak, izatean ziren. Herrian inoiz baino jende gehiago biltzen zen egun horretan, Kanpoan neskame zeudenak ere egun horretan etxera etortzeko permisua izaten zuten.

Filarmonika soinua izaten zen ere egun horretan.

Ganadu tratorik eta ez zen izaten.

KORPUSEKO PROZESIOA

Luistarren bandera eta Mariaren Alabena. Jauna paliopean inguruan haurrak aingeruz jantzita zituela. Gero jendea. Jendeartean estandarteak joaten ziren ere. Aiuntamentua joaten zen trajez jantzita eta kandela banarekin. Emakumeak atze atzean joaten ziren. Txistularia prozesioan joaten zen eta «erregeen martxa», «martxa reala» jotze omen zuen.

Bestela, Aste Santutan, Pilarika egunean eta Errosario egunean egiten omen zituzten prozesioak.



Aiako plaza.



Aiako Dantza Taldea.

12.—ELKARRIZKETA

HERRIA: ZUMAIA.

NOIZ: 1985, Abenduaren 26.

NOR: MARIA IBARRA LABIZU.

EPIFANIA ESNAL MAIZ. 1912, Zumaian jaioa.

RAMONA SEGUROIA ARRIZABALAGA. 1910, Zumaian jaioa.

MERCEDES AIZPURUA ZENDOIA. 1913, Zumaian jaioa.



Epifania Esnal.



Maria Ibarra.

SAN PEDRO

San Pedro da hemengo patroia.

1go. Eguna: S. Pedro bezpera

7ak aldera jotzen ziren kanpaiak festei hasiera emateko.

Banda hasten zen bere pasakaileak jotzen eta estadiora joaten ginen etortzen zen jendea rezibitzera.

Gauean, musika bandarekin plazan. 11etan bukatzen zen.

2. Eguna: San Pedro eguna

Txistulariekin eta Estellako dultzaineruekin kalejira.

Meza.

Kontzertua.

Arratsaldean

Zezen plazan, korridak egoten ziren.

Frontoian pelota partiduak.

Gauean

Erromeria

SAN TELMO

Festa famosoenak dira.

Kofradian ospatzen diren 3 egunetan. Danbolina, aureskua.. egiten ziren.

Prozesio bat ere egiten zen: goizean apaiza joaten zen gaixoen etxeeta jauna ematea. Ondoren, parrokitik prozesioan ateratzen ginen S. Telmo txiki eramanez S. Telmo Ermitaruntz. Banda ere joaten zen alaituz.

Kofradiko presidentea joaten zen, komandante de marina ere.

Han meza ospatzen zen.

S. Telmo txiki parrokira ekartzen zen meza ondorenean. Gero autoritateak kofradiara etortzen ziren hamaiketakoa egitera, Espainiko banderakin jeisten ziren. Eta dantzatu egiten zen kalean.

Arratsaldean musika egoten zen gaueko 12ak arte bandarekin eta danbolinarekin.

Festa alaitzeko parrokian girnaldak jartzen ziren eta Sagrado Korazon-an etxeetan.

S. Telmo Bigarrean

Olarru zopa, kafea, ematen ziren etxeetan eta hauek zabalik egoten ziren edozein joaleko.

Musika ere egoten zen.

Dantza egiterakoan, marinelek, emakumeen etxeea joaten ziren hauen hila, eta etxeko erropekin ateratzen zituzten kalera dantzatzera. Kofradian, marinel bakoitzari duru bat ematen zieten extraordinario bezala.

S. Telmoko aureskua bukatu egin zen direla urte batzuk. Dantza hauek txistulariak eta bandak alaitzen zituzten. Txandaka, jotzen zuten beren tangoak eta joz. Dantzarietzako sariak ere izaten ziren.

Zumaian hospital bat dago, 3 gizonen izenean: J.I. Zuloaga, Ortega eta Belmonte.. Hospital hau aurrera eramateko, Belmontek bi korrida egin zituen Zumaian. Bietan, bera gaizki suertatua atera zen, baina ala ere bere laguntza prestatu zuen. Hau 1925ean izan zen, Lehenengo korrida egin zuenean, ikusi genuen. Ameriketatik ere etorri zen jendea Belmonte ikustea. Etxe batetan sendatu zuten.

Belmonteri hau gertatu arren gauean berbena egon zen.

2. aldian arrapatu zuenean klinika batera eramanez beharra izan zuten sendatzeko.

IRAILAREN 8AN. ANDRA MARIAK

Salbea abesten zen. Gizon bat etortzen zen Ameriketatik hori abestera. Baita ere Nobena bat ospatzen zen goizeko 6 t'erdietan edo 7-9etan.

Gero meza nagusia.

S. Telmo eta S. Pedrotik aparte ere Euskal festak ospatzen ziren dantzariak ilanderaz jantzita, eta ganadu feriak zeudelarik.

SANTIAGOAK

Kontzertua goizean.

Sokamuturra, kukaña, galtza zuri eta blusa gorriarekin.

Erromeria arratsaldean.

SAN MIGUEL

Erromeria. Jendea etxeko erroparekin ateratzen zen.

SAN BARTOLOME

Erromeria herriko bandarekin

IÑAUTERIAK

Gerraren bukaerarekin amaitu ziren.

GABONAK

Gabon egun goizean umeak ateratzen ziren abestea eta arratsaldean Nazimentu txiki bat eskutan eramanez ibiltzen ziren etxez etxe. Etxe batzutan dirua eta besteetan janaria ematen ziren.

Berbenak ospatzen ziren gauean. Hasieran berbena irekiak izaten ziren baino gero ixti egin zituzten. Ixti zutenean Alfonso XIII etorri zen inauguratzea.

Festa hauetan etxean janari tipiko bat jaten zen: oilaskoa, haragi egosia piparrekin. Jai handietan, udaletxeko partaideak joaten ziren eleizara bandarekin eta ondoren hamaiketakoa izaten zuten udaletxean.

PAZKO EGUNA

Prozesioan ermitara joaten zen. Han santua sartzen zuten eta hurrengo egunean atera.

Ateratzean, bandarekin Jesus ekartzen zuten eleizara

Gero hamaiketakoa izaten zen.

Hau ostegun eta ostiral santuan egiten zen.

SAN MARCOS

Erresatibak egiten ziren. Hiru ermitetan ospatzen ziren. Ermitetara letaniak abestuz joaten ginen.

EGUBERRIAK

Kanpoan bizi zen jendea etxera etortzen zen festa hauek ospatzera.

Haurrek, Niño Jesusen abestiak esanez, boltsa zuri batekin etxez etxe ibiltzen ziren kantari. Batzuek dirua ematen zuten, gozokiak besteek.

Goizeko 8ak aldera hasten ziren abesten.

12ak arte ibiltzen ziren, 12etan Anjelusa esaten zen

2etan Olentzero. Udaletxean, eta alkatearen etxe ondoan kantatu egiten zuten gaur egongo abestiak. Alkateak, bakoitzari zerbait ematen zion, mandarinak, laranjak, pikuak.. Gero Tro-poiluan beste baten etxera, honela etxez etxe. Bukatu ondoren, bakoitzak bere Belena egiten

zuen. Arratsaldean 6ak aldera korua. Herriko jendea adin handiagokoa ateratzen zen kantari, eta ateratzen zen dirua herrian beharren bat zutenei ematen zieten. Hauek txistulariekin ibiltzen ziren, parrokiatik atera, herriari buelta eman, eta parrokira bukatzen zuten 9ak aldera.

9 t'erdia aldera, dena itxita egoten zen.

Gabon gauean meza egoten zen konbentuan eta umeen eskoletan. Parrokian ez zen mezarik izaten.

EGUBERRI EGUNA

Meza nagusia koruarekin.

Ondoren hamaiketakoa.

Plazan, bandarekin kontzertua.

URTE ZAHAR EGUNA

Bazkari ona etxeetan.

Gauean, 12etako kanpaien ondoren jendea kaleratu egiten zen.

Tabernak irekitzen ziren.

URTE BERRI, ERREGE BEZPERA, ERREGEAK

Bakoitzak bere etxean ospatzen zuen.

IÑAUTERIAK

Errepublikari garai arte eskolan 3 egun festa izaten ziren.

Trapu zaharrez jantzita, neska-mutilak ateratzen ziren. Egun nagusiena «Karnabal eguna» izaten zen. Asteartean festa egiten zen leku guztietan eta gauean musika egoten zen bandarekin.

13.—ELKARRIZKETA

HERRIA: ZUMAIA.

NOIZ: 1985, Abenduaren 26.

NOR: JACINTO AMAS URBIETA. 1910, Uztailaren 26, Zumaian jaioa.



Jacinto Amas Urbieta.

San Telmo Apirilaren 14an Paskuan
 Arrantzaleen festa

San Pedro Ekainaren 29an
 Herriko patroia

SAN PEDRO

Hiru egunetan festak, bezpera, eguna eta hurrengoa.

Bezperan

Kalejirak hasten ziren momentuan, jaia hasia zegoen.

Arratsaldeko bostak aldean herriko bandak jotzen zuen gaueko hamarrak arte. Bandakok lagunak ginen (1940 urtean antolatuta). Banda hau acordeoia, trompeta, eta tenorra osatzen zuten.

San Pedro eguna

Goizean bandarekin hasten zen festa.

Prozesioa ere egiten genuen, eta arrantzaleak dotore jantzita joaten ziren. Aurrean gurutze bat eta honen albotik umeak, atzetik apaizek, San Pedro eramaten zuten, aguazila, banda eta emakumeak joaten ziren.

Udaletxetik elizaraino joaten zen prozesioa. Elizan bukatzen zen.

Bandak musika famatua jotzen zuen.

Meza nagusia, gero bazkaria eta arratsaldean pelota partiduak eta bandak egindako kontzertuak.

Dantzaldiak ere izaten ziren eta hemen, denak hartzen genuen parte.

Hurrengo egunean

Umeen jolasak egiten ziren.

Txistulariek diana jotzen zuten eta gero berbena popularra.

Festak antolatu

Gazteek antolatzen zituzten.

San Pedro eta San Telmotan gauza berdinak egiten ziren.

Danttak

Ez dago San Pedro eta San Telmoren dantza propiorik.

San Pedro egunean auresku dantzatzen da.

SAN TELMO

Arrantzaleen festa

Bezpera

Txistulariak, buruhandiak eta orkestina izaten ziren.

Mezatarra eta aitortzera joaten zen jendea.

Egunean

Beste prozesioi bat egiten zen.

Goizeko 6etan egiten zen, beheko ermitara joan, meza entzun eta ondoren, santua parrokiara bueltatzen zen.

Dantzariak izaten ziren.

Bazkaria eta ondoren pelota partiduak.

Afaria eta erromeri txikia.

Hurrengo egunean

Urtean zehar hildako gendeari meza egiten zioten.

Hamaiketakoan doan hartzen zuen jendeak.

Arratsaldean arrantzaleek erromeria egiten zuten jaiak zeukaten eta, gero oso goiz bukatzen zen festa.

Ez zuten dianarik jotzen.

14.—ELKARRIZKETA

HERRIA: ZUMAIA.

NOIZ: 1985, Abenduaren 27.

NOR: PILAR ETXABE ARAKISTAIN. «XORRONDO»KOA, 1920, Urtarrilaren 15 jaioa. Zumaian bizi da.



Pilar Etxabe Arakistain.

SAN PEDRO FESTAK

1go Eguna: San Pedro bezpera

12etan kanpai nagusiak eta festen hasiera zen. Ondoren kalejira bat egiten zen herriko txistulariekin eta buruhandiekin batera.

Gauean musika egoten zen. Musika hau, herriko txistulariek eta Banda munizipalak jotzen zuten. Batzutan, kanpoko soinujole batzuk ekartzen zituzten.

Musika hau gaueko 12ak aldera bukatzen zen. Gauean, nahiko goiz erretirutzen ginen balta festetan ere. Behin, 18 urte izan ezkeroz, ia denbora gehiago uzten ziguten.

2. Eguna: San Pedro

Goizean goiz, herriko txistulariek, bandak, gaiteroek eta Estellako dultzaineroek beren kalejirak egiten zituzten.

10etan meza Nagusia. Udaletxeko partaideak banda munizipalekin joaten ziren eleizara eta meza baino lehen, prozesio bat egiten zen.

Prozesio honetan joaterakoan, jendeak beren posizioa izaten zuen. Bi klasetan jarrita, aurrean eskolako mutilak, eta hauen aurretik gurutz bat. Hauen atzetik, abadeak, ilaran, S. Pedro estandartea eramaten zuten gizon batzuk kongregazio batetan aukeratutakoak, herriko gizonak bi ilaretan, beste estandarte batzuk ere eramaten ziren San Luis, Jesusen Bihotza..., atzetik parroko gizonak, udaletxea, zihoazelarik. Ondoren bandak musika egoki bat joaz, aguazila, eta honen atzetik emakume guztiak, bai andrak bai neskatilak. Denak inongo ilararik gorde gabe.

Meza bukatu ondoren, banda munizipalak, udaletxeko jendea eramaten zuen udaletxe-raino. Prozesio honetan udaletxeko jendea ahalik eta elegantena joaten zen, askotan erropa berriak izaten zituztelarik.

Gero, banda hau, bere kontzertoa eskeintzen zuen.

Gero bazkaria.

Arratsaldean - pelota partiduak izaten ziren

Baita ere bandak, dultzaineroek... beren abestiak jotzen zituzten.

Hau 9ak aldera amaitzen zen eta hemendik ordu batetara afaria

Afaldu eta gero, berriro banda eta dultzaineroekin dantzaldiak.

Hauei «Bailable soziabileak» deitzen zieten, paso doble, dantza sueltoak..., horrelakoak jotzen zituzten.

12ak aldera bukatzen zen.

3. Eguna

Goizeko 7etan txistulari eta dultzaineroen diana: herrian zehar pasakale batzuk jo eta udaletxean bukatu.

Goizean, tiro plato, asto karrerak, bizikleta karrerak., egiten ziren

Eguerdi aldera hamaiketakoa.

Arratsaldean erromeria herriko bandarekin gauerarte.

4. Eguna

Normalean umeen eguna izaten zen. Horregatik umeen jolasak, zaku karrerak, zinta karrerak, oskol jokuak.. egiten ziren neska-mutilentzat.

Egun hau apalagoa izaten zen, urrengoan lanera joan behar zelako.

Antolatzaileak

Udaletxean, festetako komisio bat egoten zen. Komisio hau udaletxe bertatik ateratzen zen, buruzagia ere hemen aurkituz.

Tiro plato, eta horrelakoak soziedadetan antolatzen ziren.

Dantzak

S. Pedro-etan plazan egiten ziren. Askotan sari banaketa egoten zen dantza taldeentzat.

Aurrekua eta antzeko dantzak oso lotuak zeuden eta urruti. Ezin ziren dantzatu, debekatuak bait zeuden eta honengatik pixka bat galdu egin ziren.

SAN TELMO FESTAK

Herriko festa nagusiak.

Festa guzia kofradian egiten zen

1go. Eguna: San Telmo bezpera

Ilunabar aldera kanpaiak, txistulariak, buruhandiak hasten ziren festari hasiera emanez.

Ondoren koeteak botatzen zituzten.

Gero, San Telmo bezperaren meza egoten zen.

Gauean erromeria, baina nahiko goiz bukatzen zen, zeren urrengo eguna oso gogorra izango bait zen eta goiz jeiki beharra.

2. Eguna: San Telmo

Goizeko 6etan apaiza gaixoen etxeeta joaten zen pazkuko komunioa ematera. Horretarako, bezperan pasatzen zioten abisua nora joan behar zuen jakiteko. Nahi izan ezke-ro, komunioa hartu baino lehen aitortu egiten ziren gaixoak.

Goizean, kanpaiak, altsa fueroak, danbolinak egoten ziren eta musikarekin lagunduta prozesioa bat egiten zen S. Telmo ermitaraino. Parrokitik ateratzen zen S. Telmo irudia ermita-
ra eramateko. Ermita hau oso txikia zenez prozesiora eta eleizara normalean jende gazte eta zaharrak ez zen joazen. Herriko bandak laguntzen zuen prozesio honetan.

Meza ondoren, berriro ere bandarekin, S. Telmo irudia parrokira bueltatzen zen. Meza hau 11etan izaten zen.

Kofradian, herrikoentzako eta baita kanpotarentzako ere zagiardoa egoten zen. Egun honetan, etxe askotako ateak irekita egoten ziren, bertan salda beroa emanez. Denak zeuden gonbidaturik eta kanpotarrak baten laguna edo bestearena zela, izaten zuten non sartua ere.

Eguerdiaren kontzertua eta dantzariak izaten ziren, kofradiaren aurrean eta txistulariekin batera.

Dantzak neska eta mutilak egiten zituzten. Aureskua zen nagusia, baita arrantzariena, kutzarena..

Arratsaldean pelota partiduak eta erromeria akordioa, banda eta txistulariekin.

Afaldu eta gero erromeria berriro ere banda eta txistulariekin.

3. Eguna

Goizeko 8etan, S. Telmo ermitan hilak dien kofradiko arrantzaleen omenez meza.

11etan txokolate jatea, beste egunetan bezala.

12etan koeteak eta zagiardoa.

Arratsaldean

Erromeria kofradian. Egun hau lan eguna zen. Bakarrik arrantzaleek izaten zuten festa.

Afal ondoren erromeria, baina goiz bukatzen zen, hurrengo eguna lan-eguna zelako.

San Telmo Apirilaren 14ean izaten zen, baino pazko jaiak beti berdinarik ez zirenez, aldatu zuten, eta gaur egun pazko egunetik 8 egunetara ospatzen dira. Astelehena izaten da egun nagusia.

15.—ELKARRIZKETA

HERRIA: ZUMAIA.

NOIZ: 1985, Abenduaren 27.

NOR: VALENTIN MANTEROLA GOMEZ. 1916 jaioa.

AGUSTIN ITURAIN JUARISTI. 1905 jaioa.

JESUS AIZPURUA URANGA. 1905 jaioa.



Jesus Aizpurua Uranga.



Agustin Iturain Juaristi.



Valentin Manterola Gomez.

SAN TELMO (ARRANTZALEEN FESTAK)

Bezpera:

Eguerdian Kofradiako Juntakoek patroizaharrekin biltzen ziren kofradian bertan, han ardo barrika bat egoten zen nahi zuenak edan zezan eta «katxaferuak» botaz ematen zieten hasiera festeei.

Arratsaldeko bostak aldera musika hasten zen: Banda, orkesta eta txistulariak izaten ziren txandaka jotzen zutenak. Bazegoen ere «trikitiya» bezela ezagutzen zen beste musika talde bat. Bi klarinetek eta danborrak osatzen zuten talde hau. Normalean bandako musikoak izaten ziren eta dantzarako piezak jotzen zituzten, «sueltorako» eta baita ere «agarraurako».

Bederatziak aldera amaitzen zen festa eta jendea (ia dena) etxera erretiratzen zen.

San Telmo eguna

Goizeko seiretan meza izaten zen eta ondoren Prozesioa irtetzen zen «Santisimoarekin». Udaleko korporazio osoa eta herritarrak joaten ziren prozesio horretan eta gaiso zeunden herritarrei «Jauna» eramaten zitzairen «Pazkoarekin» kunpli zezaten. Herri osoak betetzen zuen orduan «pazkoakoa» eta kanpotik ekartzen zen praileren bat jendea konfesatzeko. Bederatziak aldera beste prozesio bat egiten zen herriko Eliza nagusitik San Telmoko ermitara. Bertan Meza Nagusia izaten zen sermoian Santuaren «panejirkoa» egiten zelarik.

Ondoren hamaiketakoa izaten zen kofradian eta banda eta txistularien kontzertuak hasten ziren.

Arratsaldez pelota partiduak, aizkora jokoak, bertsolariak eta horrelako ospakizunak izaten ziren. Dantzazaleak ziren arrantzaleak aureskua ateratzen zuten, bi edo hiru bider sarritan.

San Telmo hurrengoa

Nahiz eta bezperako aje galanta izan, jende guztia joaten zen zazpi terdietan mezetara San Telmora.

Handik jeitsitakoan «olagarro zopa» izaten zen kofradian.

SAN PEDRO

Bezpera

Eguedian «katxaferuak» botatzen ziren eta ondoren Bandaren «pasacallea» izaten zen. Dultzaineroak ere izaten ziren festa hauetan.

San Pedro eguna

Goizean diana eta arratsaldeko korridaren zezenen ekarrera izaten zen. Astoari lotuta ekartzen zituzten eta lasturreko zezenak izaten ziren.

Egun osoan musika izaten zen banda, txistulari eta dultzaineroekin.

Zezenketetara ospe handiko toreroak ekartzen ziren. Belmonte berak bitan toreatu zuen Zumaian (1924-25 urtetan) eta bietan zezenak harrapatu zuen.

SEMANA GRANDE

1944 aldera hasi zen ospatzen eta nagusiki edukin kulturala izaten zuen. Aste horretako egun batean «Fiesta Vasca» izaten zen.

SANTIAGO (SANTIYO)

Festa egun handia izaten zen ere bai. Zuloagak antolatzen zuen festa eta erromeria bat izaten zen.

ANDRA MARI

Ama Birjina balio handiko jantziekin jazten da egun horretarako. Bezperan ehun urtetan segidan kantatu den Salbe bat kantatzen da gaur egun ere.

GABONAK-URTEBERRI

Ume jendea biltzen zen udaletxearen aurrean eta kantuan egiten zuten:

«Olentzero buru handi
nun harrapatu dek arrai hori
bart arratseko ordubietan
itsasoaren erdian»

Udaletxetik otarkada botatzen zuten: intxaurreak, pikuak, gaztainak, laranjak, etab. Ondoren haurrak herriko etxe seinalatu batzutara joaten ziren eskean.

Urtezaharretan hamabietako kanpaiekin batera «katxaferuak» botatzea zen ohitura. Pasadizo xeblebre ugari eman zituen lehia horrek.

IHAURTERIAK-KARNABALAK

«Casino Liberal» deituriko elkarteak dantzaldiak antolatzen zituen hiru egunetan eta «Domingo de piñatan,, ere bai. Arazoren bat ere izan omen zen dantzaldi horiek zirela eta ordungo alkateak debekatu nahi izan zituenean.

16.—ELKARRIZKETA

HERRIA: DEBA.

NOIZ: 1985, Urriaren 4.

NOR: JOSE IGNACIO URBIETA EGAÑA. 1915, Deban jaioa, ia beti bertan bizi izan da.



J.I. Urbieta Egaña.

SAN ROKE

Abuztuaren 15ean.

1go. Eguna

Zortziretan salbea. Bakoitza bere aldetik joaten zen. Hamarrak aldian tanborrada, oso jazkera dotorekin.

Herri guztia pasatzen zuen Debako martxa eta Debako polka (61 urtean Solozabalek idatzi zituenak) eta klasikoak jotzen zituzten.

Gauean erromeria. Han ateratzen genuen dirua asiloari ematen genion, baina ohitura hau galdu egin da. Tanborrada sartzeko soziedadekoa edo sozio baten semea izan behar zen.

2. Eguna

Dantzariak (alkandora, praka zuriak, zapi gorria, gerrikoa eta txapelik gabe) ezpatekin, elizatik S. Roke ermitara joaten ziren. Bidetik dantzatu egiten zen eta goian, ermitan, aurrekua.

16, 17edo 18an

Segun zein egunetan tokatzen zen, «La corrida de los marineros» ospatzen zen. Hemen ere aurrekua dantzatzen zuten.

Obiobide soziedadeak, 1947 urtean sortua, antolatzen zuen.

Plazaren montaketa eta desmontaketa udaletxeak ordaintzen zuen eta bestea soziedadeko lagunaren artean, haien poltsikotik, egiten zen (behin, Nafarrora zezenen bila joan ziren).

Festa farregarria zen.

Beste egunetan

Plazan berbenak egiten ziren organiloa eta dena alkilatuz (horretarako udaletxeari baimena eskatu behar zioten): sarrera libre zen, baina dantzatzen zuen jendeak txartel bat ordaindu behar zuen.

Txitularririk famatuenak Faustino Urain eta bere semea Angel Urain ziren. Hauek jai guztietan etengabe egoten ziren eta bitartean bandak bi abesti jotzen zituen (oso banda ona zen).

Kuadrilek, orain bezala, «bodegak» zituzten egoteko eta beren gauzak prestatzeko.

Beste herritatik jende asko zetorren makailua jatera.

Kanpainek denetarako jotzen zuten: salbera, meza nagusiara joateko..

Estropadak, kukaina, entzierro, zinta karrera, boxeo eta beste joku batzuk izaten ziren.

San Rokeri zapia ipintzeko ohitura, direla hamar edo hamabost urtetik datar. Buruhandiak ateratzen ziren ekintza honi laguntzeko.

IÑAUTERIAK

Asteartean ospatzen ziren. Soziedadeetan antzerkia egiten zuten.

Jendea edozein gauzakin jantzita kaleratzen zen.

17.—ELKARRIZKETA

HERRIA: DEBA.

NOIZ: 1985, Urriaren 4.

NOR: PEPE RODRIGUEZ EPELDE. 1907, Deban jaioa.



Pepe Rodriguez Epelde.

Noiz hasten ziren hemengo jaiak?

Hemengo jaiak betidanik, Abuztuaren 14an hasten dira. Garai hartan ere arratsaldeko 4etan hasten ziren, S. Rokeri pañuelo gorria jarri eta gero, plazako arkupe sarreran. Hasiera batetan S. Roke eguna bakarrik ospatzen zen, gero Ama Birjiñaren eguna ere ospatzen hasi zen.

Zein da hemengo zaindari edo patroï?

S. Roke izan da beti.

Zenbat egunetan ospatzen ziren bertako festak?

Egitaraua hau izaten zen:

14.an Jai hasiera, bezpera

15.an Ama Birjiñaren eguna

16.an S. Roke eguna

17.an S. Roke bigarren eguna

18.an Mariñel korrida eguna

19.an «Señorito» korrida eguna

20.an Azken eguna

Zer zegoen berezirik egun horietan?

Egun horietarako Zirkoa etortzen zen Donostiatik, ZIRKO PARIS. Inguruko jendea etortzen zen, Motrikotik eta herrietatik...

Zirko hori plaza erdian jartzen zuten, tablao bat eta aulkiak inguruak jarriaz.

Hortarako herri hontako pertsonaje batek alkilatu egiten zuen plaza hau Udaletxeari eta bera arduratzen zen festejoak antolatzen. Bere izena Patxi Iriondo.

Bezpera egunean. Abuztuaren 14.an, gauean berbena ospatzen zen

Pañeloa jarri eta gero, kalejirak egiten ziren bertako txistulariak eta Nafarroatik etortzen ziren dultzaineroak parte harturik.

Herrian bazegoen musikako bandarik?

Musikako banda herrikoa zen eta bertako zuzendaria José Mari Izaga zelarik. Kalejiretan denak parte hartzen zuten: herriko bandak, txarangak eta txistulariek. Urain aita semeak ziren bertako txistulariak.

Era dultzaineroak?

Dultzaineroak Nafarroatik etortzen ziren.

Bezperan egunean zerbañ berezi egiten zen elizan?

Egun horretan zortzirak aldean «Salve» abesten zen. Egun batetan Miguel Fletak abestu zuen, bertan uda pasatzen zuela eta.

Eta gero zer egiten zen?

Gero berbena, kanpotik ekartzen zuten orkestaren batekin.

Nondik ekartzen zuten orkesta hauek?

Gehienetan Donostia edo Bilbotik izaten ziren, herrietan ez zeuden eta. Orkesta hauek onak ziren eta bertan jende asko parte hartzen zuten, 12 edo 14 pertsonak osatzen zuten gehienetan. Hamaikak aldean hasten ziren jotzen eta gaua guztia jotzen zuten goizeko bostak arte. Orkesta honek pelotalekuan jotzen zuen. Joaten ziren gehienak «beraneanteak» izan ziren. Bertakoak dira gutzi zaukatzen eta nola ordaindu behar zuten.

ABUZTUAREN 15, AMA BIRJIÑAREN EGUNA

Zer egiten zen egun honetan?

Goizean txistulariek eta dultzaineroek «diana» jotzen zuten entzierro egin ondoren. Egun horretan bandak kontzertoa jotzen zuen eta kanpotik eta etortzen zen Gasteizko banda jotzera.

Egun honetan nolako prozesioa egiten zen?

Egun honetan ez zen egiten inolako prozesiorik; urrengo egunean bai.

S. Roke egunean Apaiza eta monaguilloak alde batetik eta alkateak eta kontzejalak bes-tetik S. Roke imajina eramaten zuten elizatik herriko ermitara urrengo egunean berriz ekartzeko. Urrengo egunean itzultzerakoan, S. Roke eta herriko udal gizonen aurrean dantzatzen zen aureskua eta handik berriz S. Roke eramaten zuten elizara.

Elizakoak bukatu eta gero zerbañ berezi egoten zen?

Bai jolas batzu: mutil koskorrentzat saku karrerak eta beste jolas batzu.

Aureskua nortzu dantzatzen zuten?

Herriko dantzariak, txaleko eta pañuelo gorriaz apaindurik. Dantzariak herriko gazteak izaten ziren. Gero aureskua bukatu eta gero, arin arin batzu dantzatzen zuten berta-gasteak.

Gauean suak egiten ziren eta gero musika egoten zen herriko bandak eta dultzaineroak jotzen zutelarik.

S. ROKE EGUNA (Aurretik esan dugu egun honetako ekintza nagusiak)

Mariñel korrida eguna

Egun honetan korrida zen ekintza nagusia. Astoen gainean zirikatzen zuten batzuk eka-rritako zezenak, Korrida hau eginaurretik aurrekoa dantzatzan zen eta azken arin arinetan «beraneanteen» neskak dantzatzan zuten.

Nortzu antolatzen zituzten jaiak, Udaletxeak, elkarteek, gazteek?

Udaletxeak ordaintzen zituen gastu guztiak eta antolatu, plaza hartzen zuenak. Berak antolatu behar zituen zezenak, eta bestelako festak.

Gazteak parte hartzen zuten haurrentzat jolasak antolatzen eta bestelako jolasak: batelak eta gondolak.

Beste herrietan bezala, Deban bazegoen «puxka biltze» egiteko ohiturarik?

Ez hemen bakarrik, Sta. Ageda egunean egiten zen holako zerbaite. Bertako gazteak, hamalau urte arte, bertso batzu abestuz, janari eta diru eskatzen zuten eta bildutako guzkiekin banaketa egiten zuten.

Jai hauetan, aurreku dantza egiten zenean non egiten zen, Udaletxe aurrean?

Bai aurreku Udaletxea aurrean, bertara begira egiten zen. Balkoian Alkatea eta beste-lako nagusiak bertan zeuden. Aurreku hau arratsaldean egiten zen Mariñel korrida egin bai-ño aurretik.

Alkate eta kontzejalak nola joaten ziren jantziak?

Dotore joaten ziren Txistera eta traje beltzaz. Koadrilak aukeratu egiten zuten egun hortar-ako «Alkate eta Alkatesa» eta hauek zuzentzen zuten ekintza guztiak egun hortakoak. Eskon-beak izaten ziren eta nahiko gazteak.

Mariñel korrida baino aurretik dantzatzan zen aurreku bukatu eta gero, egiten ziren arin arin etan «beraneanteen» neskak dantzatzan zuten.

«Señoritoen» eguna

Egun honen antolamendu kanpoen eskuetan zegoen. Beraneante asko zeuden Deban garai hartan. Eurak ere korrida bat antolatzen zuten. Eta korrika hori egin baino aurretik dant-zatzan zen aurreku, ondoren egiten zen, arin arinetan kanpoko mutilak dantzatzan zuten.

Nola bukatzen ziren herriko festak?

Ezer berezirik gabe. Dena dela, azken egunetan «tanborrada» bat egiten zen. Eta gaueko hamabi aldeak bukatzen hori «Pobre de mi» abestu ondoren txaranga eta bandak lagunduz.

16.—ELKARRIZKETA

HERRIA: ITZIAR.

NOIZ: 1986, Ekainaren 30.

NOR: ANTONIO GOENETXE «TXANKARTA». 1922, Itziarren jaioa.

TELESFORO ZUBIKARAI. 1910, Itziarren jaioa.

MARIA MENDIZABAL. 1921, Itziarren jaioa.



Telesforo Zubikarai.



Antonio Goenetxe «Txankarta».



Maria Mendizabal.

Itziarreko festa nagusia «KOFRADIAK» dira.

Festa hauek koronazio aurretik, orain dela 29 urte, Abuztuaren azkenaldian, egiten ziren, baina koronazioa egin ondoren, abuztuaren lehenean egiten ziren.

Lehen Itziar arrantzaleen edo marineken herria zen, baina geroago arrantzaleak Itziarretik Debara zihoazen arrantzara. Marinelek kofradioak egin zituzten eta hortik hurrera hasi zen festa Itziarren.

Koronazio ondoren, festa, Ama Birjinaren egunarekin hasten zen

Hiru egun izaten ziren. Kanpainen jotzarekin batera, lapikoez jotzen zituzten.

Aztelehenean meza nagusia egiten zen edadekoentzat eta arratsaldean zezenak izaten ziren.

Koronazio aurretik ez zen prozesiorik egiten.

Auzoko festa zenez, udaletxea ez zen gehiegi festa honetan sartzen.

Aureskua ere egiten zen: lehenengo egunean ezkondukoentzat, bigarrenegun haurren-tzat. Bi egun hauek ospatzeko, udaletxeak laguntza eskeintzen zien, baina gazteentzat izaten zen hirugarren egunerako ez zuten ezer ematen.

Lehenengo bi egunak berdin xamarrek izaten ziren. Hirugarren egunean, gazteen kuadrilak ateratzen ziren kalera.

Dantzak saioak ere izaten ziren, bazkal aurretik eta bazkal ondoren, arratsaldeko bostak aldera.

Hirugarren egunean haizkolari eta harrijasotzaileak ere izaten ziren.

Diru kontuak eramateko ez zegoen inor.

Azteazkeneko edo hirugarren eguneko organizazioa kuadrilak berak antolatzen zuen. Baina beste egunetan txistulariak edo oilariak prestatzen zuten.

Dirua ez zen obligatorioki eskatzen, baina uskabila eskatzen zen; hirugarren zezena ateratzen zenean borondatea eskatzen zen gastoak ordaintzeko.

Festatan bi mutil ibiltzen ziren plaza inguruan bi ardozko garrafaikin astotan jarrita ardoa banatzen, baina ardoa nahi zuenak ordaindu behar zuen.

Txistulariak egoten ziren. Jende mordo bat elkartzen zen festetan; erroskila saltzaileak ere etortzen ziren.

Patxi Errekondok (ez da bizi) eta Esoainek guda karlistan izandakoak biek batera jotzen zuten.

Aureskua ere bazegoen eta herriko jendeak parte hartzen zuen.

Txistulariekin egiten zuten (haiek ere herrikoak izaten ziren).

Zirkuluan dantzatzen zuten. Direktzioa eskubitik ezkerrean izaten zen.

Atzealdean eta aurrealdean zeuden banatuta, atzekoak mailak jotzen zituzten eta aurretaldeak saltoak ematen zituzten.

Axeri dantza dantzatzen zuten. Bai atzekoak eta aurrekoak.

Edozeinek dantza egin zezakeen aureskuan. Guztiak zapiez lotuta zihoazen.

San Juanetan ere egiten zen festa.

Santa Agedan ez.

Eguberrietan haurrek egiten zuten festa.

Karnabalak ez zituzten ospatzen.

19.—ELKARRIZKETA

HERRIA: ITZIAR.

NOIZ: 1986, Ekainaren 30.

NOR: PILAR AGINAGALDE.



Pilar Aginagalde.

Pilar Aginagaldek, Itziar eta inguruko festei buruz asko daki, herrian urte askotan zenbait gauzetan antolaile lanean aritu izan da.

Ba genekien guzti hori eta ba genekien ere Festei buruzko argazki bilduma interesgarri baten jabe zela. Orregatik bere etxean sartu giñenean elburu konkretuerekin gindoazen; Argazki horiek, Pilarrek segituan eta gustoz erakutsi zigun bere «artxiboa», eta nai genuen guztia kopiaitzeko aukera eman zigun. Argazki horietako batzuek emen azaltzen dira. Itziarko argazkiekin batera, Lasturreko pare bat ere sartu ditugu. Festa inguru eta giro nolakoa zen hitzek baino obeto adierazten dute, edo obeto esanda, hitzek diotena lagundu eta osatu egiten dute.



Itziar «Dantza Soka».



Itziar «Dantza Soka».



Itziar «Dantza Soka».



Itziar 1930 aurretik.



Itziar, mendian, gerra aurretik.



Itziarko Festak, gerra aurretik.



Lastur.



Lastur.

20.—ELKARRIZKETA

HERRIA: MUTRIKU.

NOIZ: 1986, Martxoaren 14.

NOR: FRANZISKO LIZARDI SANSEBASTIAN «KAIALDE». 1914, Abenduaren 14an.
jaioa.

TOMAS ANDONEGI BARRENETXEA «XOXUA». 1918, urriaren 28an jaioa

JOAKIN LARRAÑAGA «JOAKIN TXIKI» (TXISTULARIA).

ANTONIO ALBERDI «PERKITXU»



Franzisko Lizardi.



Tomas Andonegi.



Joakin Larrañaga.



Antonio Alberdi.

Zein da herri hontako patroia edo zaindaria?

Motrikuko patroia STA. MARIA MAGDALENA izan da beti. Hau Uztailaren 22an ospatzen da.

Baina zenbategun ospatzen dira jai hauek?

Izatez 21 eguerdian hasten dira jaiak eta 22 eta 23 an jarraitzen dira.

21an bezperan, ze ordutan hasten ziren ospakizunak?

21an eguerdian, ordu biak aldean, kanpaiak jotzen zituzten eta etxapeuak puxtuak izaten ziren.

Gero 6rak aldean jiganteak ateratzen ziren danbolinteroekin eta 8rak aldean «Salbia» izaten zen parrokixan.

Salbia abesteko, Saturrarango Seminaristak etortzen ziren.

Bandak ere parte hartzen zuen. Hortarako Udaletxera joaten zen eta handik Korporazioa parrokixara joaten zen.

Bandakin batera danbolinderuak ere joaten ziren.

Salbetik atera ondoren goizeko ordu bata arte dantza egoten zen goiko plazan. Bertan banda, danbolinderuak eta urte batzutan ere organillua jotzen zuten txandakatuz.

Urrengo eguna 22, goizeko 7etan diana danbolirenduak jotzen zuten kale guztietatik. Beranduago Bandakoa hori bera egiten zuten baina kale nagusitik bakarrik.

Goizean ere entzierroa egoten zen kale bat edo bi itxi eta tartean zezenak ibiltzen ziren.

9ak aldean bandak kalejira bat egiten zuten Udaletxe aurrean bukatzeko. Bertatik Korporaziokoak hartu eta elizara meza nagusira laguntzen zioten.

10ak aldean meza nagusia. Bitartean prozesio egiten zuten herrian zehar.

Nola joaten ziren prozesio horretan?

Aurrenean mutil koxkor guztiak, gero abadia eta monagilloak gurutziaekin. Ondoren Sta. Maria Magdalena eta S. Pedroren imajiñak. Hauen ondoren Udaletxeakoak, herriko gizonak, eta azkenik neska gazteak eta emakumeak. Musika banda santuen atzetikan joaten zen.

Zer jotzen zuten prozesio garaian?

Martxa moduko musika, besterik gabe.

Gero itzultzen ziren berriz elizara eta meza bukatu ondoren Sta. Maria Magdalenaren erreljixia ematen zuten.

Handik ateratzerakoan korporazio Udaletxera joaten zen eta bertan amaiketako bat izaten zuten beraiantzat bakarrik.

12ak aldean, zezenak enbolatuak goiko plazan, Plaza Txurrukan, sokamuturra behin bakarrik egon zen.

Eguerdiko 1ak aldean bandaren kontzertoa ospatzen zen.

Arratsaldean ere enbolatuak izaten ziren.

Arratsaldeko 4 terdietan: pelota partidua. Zezenak torero eta guztiz. Hauek Euskal Bilera-koak izaten ziren.

Ilunabarrean musika eta dantza. Eibar eta Elgoibarko bandak ekartzen zituzten. Danbolinderuek ere jotzen zuten txandakatuz.

Organileruak ere jo zuen urte batzutan, baina dantza egiteagatik, hiru txakurraundi pagatu behar zuten. Jendea kexatu egin zen eta handik aurrera ez zuten gehiago jo.

Banda eta dabolirenderuek ordu bata arte jotzen zuten. Gero beste urteetan ere dultzaineroak ere etorri ziren.

23AN MADALEN TXIKI EGUNA

Nola hasten zen egun hau?

Tetan aurreneko egunetan bezala, goizeko 6etan diana. Gero entzierroa eta mutil koxkorentzat jokuak.

Ordubatak aldean bandaren kontzertoa kanpotik etortzen zen bandarekin.

Batzutan ere aureskua arratsaldetan herriko gazteak dantzaturik. Auresku horretan 24-28 pertsona parte hartzen zuten.

Ondoren pilota partiduak egoten ziren.

Nola bukatzen ziren jai hauek?

Hamarrak aldean dantza hasten zen eta hori jarraitzen zuen gaueko hamabiak arte. Hemendik arrantzaleak zuzen zuzenean itsasuntzietara joaten ziren. Honela bukatzen ziren Motrikuko jaiak.

Urtean zehar ba daude beste festa batzu ere Motrikun.

KALBARIKOKOA

Jai hau Irailaren 14an ospatzen da.

13an

Bezperan, etxapleuak botatzen ziren. Gero Jiganteak eta danbolirenderuak kalejira batzu egiten zituzten herrian zehar.

14an

Goizean peregrinazioa egiten zen Kalbarixoko ermitara. Bakoitza bere gisan joaten zen. Han meza nagusia egoten zen. Bertara itsasuntziko patroiak eta mariñelak izaten ziren. Jai hau mariñelena zen batez ere.

Gero meza bukatu ondoren patroiek konbidatzen zituzten mariñel guztiak hamaiketako batetara.

Jendearen artean batzu bertan gelditzen ziren, beste guztiak etxera joaten ziren bazkaltera.

Gero arratsaldean herrian bertan, dantza egoten zen gaua arte.

15an

Diana eta jiganteak egoten ziren goizean.

Arratsaldean pilota partiduak eta batelak eta estropadak.

Gero dantza gauerdirate.

Jai hauek ospatzeko, mariñelak, dirua bildu egiten zuten tabernaz taberna.

Beste jai inportantea Motrikun:

SAN PEDRO EGUNA

Hau ere mariñelen jaiak dira. Jai hau 29an bertan hasten zen.

Goizean: Diana -danbolinderuekin

Pasakalle - musika banda

Meza nagusia:

Mariñelen kofradizakuak (batzordekoak) Udaletxera joaten ziren.

Eta bertatik Udaletxekoekin, batera mezara joaten ziren formazioan danbolinderuekin.

Prozesioa ere egiten zen. Madalenetako jaiak bezala. Imajiñak orden deberdinean joaten ziren: lehenengo S. Pedro eta gero Sta. Maria Magdalena.

Gero bazkaria egiten zen Kofradizako Batzorde eta Udaletxekoen artean.

Arratsaldean: Aurrekua: mariñel zaharrak dantzatzeko zuten. Gero Sagi-dantza ere egiten zen eta Jorrai-dantza atxurrekin.

Gero dantza egoten zen gauerdirarte.

SAN PEDRO TXIKI EGUNA

Egun honetan, jai guztien bezala diana eta kalejirak egiten ziren.

Ezen egoten prozesiorik.

Meza ondoren, jolasak ospatzen ziren: erregatak, paitxak eta abar

Kukañak ere egiten ziren.

Egun hortan gaueko 12tan bukatzen ziren jaiak. Ordu horretan mariñelak itsasora joan behar izan zuten.

Ba daude beste jai batzuek ospatzen zirenak Motrikun

SAN JUAN EGUNA

Muellean egiten ziren suak.

STA. AGEDA EGUNA

Eske egiten zen baserri eta herrian zehar. Hori gazteak egiten zuten gero bildutakoarekin afari bat egiten zuten.

EGUBERRI

Hau ere ospatzen zen. Haurrak eske egiten zuten etxez etxe.

KARNABALAK

Hirugarren eguna ospatzen zen batez ere. Musika banda jotzen zuten.

Jendeak jantzi berezi batzuek erabiltzen zituen. Sobrekama bati zulo bat egin erditik eta bertatik burua sartu. Gero aurpegia margotu eta aurrera. Egun inportanteak ziren igandea eta asteartea.

NAZARENO EGUNA

Hau uztaileen hirugarren igandean ospatzen zen. Batez ere arrantzaleen artean ospatzen zen.

SAN JERONIMO EGUNA ETA S. ANDRES EGUNA

Bi santu hauek ermita bat dute herriko bi auzoetan. Bertakoak ospatzen zuten jai hau.



Mutriku. Lizarrako dultzaineroak (Elizaga anaiak).



Mutrikuko Festak. Dantzariak dantzan.



Mutrikuko Festak. Dantza taldea.



Mutrikuko Festak. Itxas-jolasak.



Mutrikuko Festak. Aizkolariak.